

KARKARA

GUKA



JON AZKUE SAIZAR

**AMETS BAT
ATZERRIAN**

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA



Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 · 623 47 57 52
 ardoraarraidegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 ...orio...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

azkue

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



· Komun eta sukaldeen erreforma
 · Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
 · Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
 · Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
 · Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28


Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN

KAÏOA



kaioa_denda
 www.kaioa.es



KARKARA 448

2023-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 4 **Iritzia** Gorka Zabaleta
'Gu' zabalago bat
- 6 **Hitz tantak** Andrea Zipitria
Aritz Aranguren: "Yeraik 4 urterekin ikasi zuen skatean"
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Jabi Gonzalez Toston
Mobilizazioa
- 11 **Gutunak**
- 12 **Akuilua hartuta** Naiara Iruretagoiena
Hautzaroa eta gaztaroa Aian
- 13 **Puntua jarrita** Ekiñe Saizar
- 15 **Herrian galdezka**
Nola ospatzen dituzu inauteriak?
- 16 **Elkarriketa** Jabi Gonzalez Toston
Jon Azkue Saizar: "Argi nuen,

Bidasoa utziz gero, atzerrira joateko izango zela"

- 23 **Moila bazterretik** Egoitz Dorronsoro
Stokholmeko sindromea
- 32 **Erreportajea** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Emakumeen aldeko borrokan, zaharrak berri
- 38 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Orio eta Igeldoren arteko mugaldea (eta III)
- 42 **Erreportajea** Andrea Zipitria
Herri izaera duten auzo biziak
- 45 **Ikasleak idazle** Lardizabal Herri Eskola
- 46 **Plazan bazan**

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Andrea Zipitria
Jabi Gonzalez Toston
Onintza Lete Arrieta

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Naiara Iruretagoiena
Ekiñe Saizar
Egoitz Dorronsoro
Iñaki Iturain

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:
SS-346/90

ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAIKO
UDALA

‘Gu’ zabalago bat



GORKA ZABALETA UKTKO ZUZENDARI NAGUSIA

Lau urte bete dira Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuenetik, aurrez, mende laurdenez, gure herrietan lanean aritu ziren euskara eta kultur elkarteei lekukoa hartuta. Urola Kostako eta Urola Erdiko hedabideok indarrak batuta ari gara lanean orduz geroztik, gure herritarrei tokiko komunikabide onenak eskaintzeko, etengabe eraldatzen ari den gizartearen behar berriei ahalik eta ondoen erantzuteko. Lehen euskara edo kultur elkarte ginen; orain, irabazi asmorik gabeko kooperatiba gara. Eraldatu gara indarberritzeko, gure izateko arrazoiari eutsi ahal izateko: gure errealitatea guretik kontatzeko, herritarrekin eta herritarrentzat, bertako begiekin, eta euskaraz. Eta bakarka baino hobeto elkarrekin, gu zabalago batetik.

Egin duguna

Beraz, 2019an elkartu ginen Karkara, Baleike, Uztarria, Maxixatzen, Urola Kostako Hitza eta Erlo Telebista, eta orain 33 langilez osatutako komunikazio talde multimedia bat gara. Lantalde bakarrean antolatuta, lau aldizkari, egunkari bat, telebista bat eta sei webgune argitaratzen ditugu, eta milaka dira egunero gertuko albisteak gure bitartez jasotzen dituzten herritarrak.

Lau urte hauetan gure aldizkariak hobetu ditugu, telebista indartu dugu eta atari digitaletako ekoizpena biderkatu dugu. Aurrerapauso handia egin dugu eduki digitaletan eta bideogintzan eta, aldi berean, ahalegin handia egin dugu paperezko eskaintzari merezi duen garrantzia emateko. Azken finean, elkarteengandik oinordetzan jasotako hedabideei gure onena ematen saiatu gara.

Estrategia berria

Baina ez dugu atzera begira lo gelditu nahi. Gizartea oso azkar ari da aldatzen, informatzeko eta komunikatzeko molde, euskarri eta joera berriak ari dira nagusitzen, eta gure ardura da eraldaketa horri bizkor eta indarrez heltzea, euskarak tokiko informazioaren plaza gal ez dezan. Eta erronkari aurre egiteko, prest daukagu gure bide-orria: Guka estrategia.

Zer dago Guka estrategiaaren oinarrian? ‘Gu’ zabalago eta indartsuago bat sortzeko beharra. Gure herrietan sendo sustraitutako komunikazio taldea gara, eta gure herriekiko konpromisoa sakondu nahi dugu: herritar informatuak eta aktiboak nahi ditugu, gertuko komunitatearen ahalmenetan sinetsiko dutenak; herri biziak

eta euskaldunak nahi ditugu, garai berrietara egokitzeko gai direnak. Eta horretarako, ezinbestekoa da euskarazko toki komunikabideak eraldatzea eta indarberritzea.

Irakurle digitalak

Gustatu ala ez, gure gizartea digitala da dagoeneko. Azken hamarkadan gertatu den iraultza teknologikoak eragin sakona izan du gure egunerokoan, zer esanik ez informazioaren eta komunikazioaren esparruan. Gaur egun, UKTKo hedabideen artean, webguneak dira, alde handiz, irakurle gehien dauzkaten hedabideak. Esate baterako, joan den urtarrilean, 860.000tik gora ikustaldi izan zituzten gure sei webguneek. Egunero milaka zarete gure irakurle digitalak, eta adin tarte guztietakoak. Alde horretatik, arrakastatsua izan da gure webguneek egin duten bidea.

Bazkideak, paperean

Bestalde, oraindik ere paperezko argitalpenak ezinbesteko erreferentzia dira gure bazkideentzat eta harpidedunentzat. Paperezko jaio ginen duela 25-30 urte, eta horrek erabat ezaugarritu gaitu gaur arte. Gure ordainpeko bazkide fidelenek paperezko aldizkariari diote atxikimendua,

haiek ere, albiste gehienak dagoeneko digitalean irakurtzen dituzten arren. Hori bai, gauzak diren bezala, adin batetik beherakoak (40 urte?) oso gutxi dira paperezko hedabideen ohiko kontsumitzaile.

Kosteen garestitzeak ere zaildu egiten du paperezko argitalpenen etorkizuna. Esku artean daukazun aldizkarian igerriko zenuen aldaketarik. Orain arte 48 orrialdekoa zen aldizkaria, eta beste 16 orrialde zeuzkan Guka gehigarriak erdian. Aurrerantzean, 48 orrialdeko argitalpen bakarrean jasoko duzu dena.

Erabaki horrek zerikusi zuzena du inprentako gastuek azken bi urteotan izan duten gorakada handiarekin. Paperaren prezioa bikoiztu egin da eta aldizkariak inprimitzea %30 garestitu da pandemia ondoren. Bestalde, azaldu beharrik ez dago zenbat garestitu den bizitza oro har; guk ere neurriak hartu behar izan ditugu gure diru kontuak nola edo hala orekatzeko.

Erabaki dugu gastuen igoera neurrigabearen erdia kooperatibak berak hartuko duela bere gain, eta beste erdia bazkide kuotak egokituz eta inprentako gastua murriztuz berdintzea. Dena den, edukirik ez da galduko, paperean inprimatu gabe gelditzen dena digitalean eskainiko dugulako.

Bestalde, kazetaritza eduki landuei emango diegu lehentasuna aldizkarietako orrialdeetan.

Produktutik proiektura

Hortxe, beraz, hedabideon erronka: nola zabaldu gure bazkide multzoa, betikoei eutsiz eta belaunaldi berriak erakarriz, ekonomikoki ere bideragarri izateko? Nola lortu babes handiagoa gure irakurleengandik? Gure iritiz erantzuna proiektuaren xedean dago, produktutan baino.

Produktuak, euskarriak, moldeak eta tresnak aldatu egingo dira gizartearen joeren arabera; kontua da egokitzen jakitea eta garai bakoitzean gure izateko arrazoiak arrakastaz bete ahal izatea. Horretarako, proiektua babestuko duen komunitate zabalagoa behar dugu, tokiko informazioa euskaraz nahi duten kideak nahi ditugu, edozein dela euskarria.

Segurunez, honezkero ohartuko zinen, irakurle, aldizkari honen azalean badela aldaketa bat. Betiko markarekin batera, hor ageri da Guka, bide berriaren iragarle. Hurrengo hilebeteetan azalduko dugu xehetasun gehiagorekin zer datorren, zergatik eta zertarako, baina mezua garbia da: herri, talde, eragile eta herritar

bakoitzaren beharrei erantzutera dator; euskarri, tresna eta kidetze aukera berriekin, irakurle gehiagorengana iristeko, herritar gehiagoren atxikimendua lortzeko, tokian tokiko komunitateak indartzeko.

Gure egitekoa ez da aldatu, eta ez da aldatuko: tokiko kazetaritza euskaraz. Gainontzeko guztia aldagarri da, helburua lortzeko mesedegarri bada. Lehen hainbat elkarte ginen, orain kooperatiba batean antolatu gara. Elkarrekin eskuzabal jokatu dute, izan berri baten mesedetan. Langileok ere apustu handia egin dugu, besteak beste, kooperatibari gure diru ekarpenak eginez. Hurrengo hilebeteetan, pixkanaka, estrategia berriak hartuko du lekukoa. Herri herri jarraituko dugu kazetaritza egiten, baina gu zabalago batetik, Guka egin nahi dugulako. ■■■

"TOKIKO INFORMAZIOA EUSKARAZ NAHI DUTEN KIDEAK NAHI DITUGU, EDOZEIN DELA EUSKARRIA"

Aritz Aranguren: "Yeraik 4 urterekin ikasi zuen skatean"

TESTUA: ANDREA ZIPITRIA

ARGAZKIA: YERAI ARANGUREN

Zarauztarra da izatez Aritz Aranguren, baina duela hamabost urte inguru jaioterria uztea erabaki zuen, Aiara joateko. Txikitan behin edo behin skatean ibiltzen zela aitortu du Arangurenek, baina zaletasuna ondoren etorri zaio, heldutasunera iritsitakoan. Aitarekin alderatuz, ordea, azkar hasi zen gurpil gainean ibiltzen Yera semea. Hain zuzen, 4 urte bete berri zituenen. Ordutik, aita-semeak batera ibili ohi dira, baina Yera abilagoa dela nabarmendu du aitak.

Nolatan hasi zineten skatean zu eta semea?

Ni txikitan ibili izan nintzen skatean, baina oso gutxi. Orduan futbola zegoen modan, eta skate munduaren berri ezer gutxi genekien. Hala ere, surfarekin batera, betidanik gustatu izan zait, eta pixkanaka, interesa piztu zitzaidan. Semeari lehenengo patinetea 4 urterekin oparitu nion, eta ordutik ibili da skatean. Txikia izanagatik ere abilezia handia zuen. Egia esan, hasieratik ikusi genuen bere adinerako oreka oso ona zuela, eta berari, gainera, izugarri gustatu zitzaion skatea. Bi arrazoi horiengatik, gero eta gehiago ibiltzen hasi zen, gaur arte. Orain 8 urte ditu, eta bere adinean patinetea halako ongi maneiatzea ez da ohikoena, eta ez dut esaten bere aita naizelako bakarrik.

Lehiatzen aritzen da, ala momentuz zaletasuna da?

Azaldu bezala, oso txikitatik hasi da, eta orain arte ez du aukerarik izan txapelketetan parte hartzeko, adinagatik. Pasa den urtean, esaterako, Euskadiko Txapelketara joan nahi izan zuen, baina ez zitoten utzi, ezarritako adina baino urtebete gutxiago zuelako. Hala ere, gure asmoa da aurtun parte hartzea. Esan beharra dago oso lehiaketa gutxi egiten direla skatean; beste kirol askotan baino dezente gutxiago.

Pentsatzen dut, kirol guztietan bezala, ordu asko sartu beharko direla skatean abilezia lortzeko... Zentzu horretan, nola moldatzen zarete?

Bai, hala da. Ordu asko eskaini behar zaizkio skateari. Aian ez dago skate parkerik, eta inguruko herrietara joan behar izaten dugu skate parkean ibili ahal izateko, Zarautzera edo Azpeitira, kasu. Zarauzkoa txikia da, ordea, eta azken aldian Azpeitira gusturago joaten gara. Izugarrizko parkea ireki dute bertan. Dena den, arratsalde batzuetan nahiko okupatuta egoten da Yera, beste kirol batzuk ere egiten dituelako. Kasu horietan, *street skate* edo kaleko skatea bezala ezaguna den modalitatea praktikatzeko dugu. Ardi jolasa dagoen parkean ibiltzen gara, edo bestela, herriko eskailerak jaisten. Halaber, etxeko garajeetan zirkuitu txiki bat ere muntatu dut, euria egiten duen egunetan bertan ibili dadin.

Orduan, batez beste, zenbat orduz ibiltzen zarete egun batean?

Ba, normalean, astean hiruzpalau egunetan entrenatzen dugu, eta joaten garen bakoitzean, batez beste, esango nuke lau orduz ibiltzen garela. Asteburuetan, gehiago, agian. Izan ere, urrutiago dauden skate parkeetara joateko ohitura dugu, Bizkaian daudenetara, adibidez. Kasu horietan, ogitarteko bat hartzen dugu, eta ia egun osoa pasatzen dugu etxetik kanpo. Eskerrak nik ere gustukoa dudan kirola!

Aipatu duzu hainbat modalitate daudela skatean; kalekoa eta parkeetan egiten dena, esaterako. Zein duzue nahiago zuek?

Bai, batez ere, bi modalitate bereizten dituzte gehienek, horiek baitira ezagunenak: *street skateboard* –kaleko skatea– eta parkeetako skateboarda. Azken hori da gehien gustatzen zaiguna. Azken finean, gustu kontua da, ez beste ezer.

Zein egoeretan dago skatea kirol gisa?

Lehen ez zen hainbeste ikusten, baina orain modan jarri da, eta gero eta gehiago praktikatzen da. Hainbat eskola ere ireki dituzte. Pixkanaka izena hartzen ari dela esango nuke, eta hala izan dadila. ■■■



Mobilizazioa

ARGAZKIA: JABI GONZALEZ TOSTON

TESTUA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Gaur egun zazpi euskal preso geratzen dira Euskal Herrira hurbildu gabe, tartean Gregorio Eskudero oriotarra. Hala, "salbuespen egoera" hori salatzeko eta Euskal Herriratzeko eskatzeko mobilizazioak abiatu dituzte. Alde batetik, otsailaren 4an manifestazioa izan zen Orion, Sarek deituta. Bertan, "iraganeko politikak baztertu eta urrunketaren mamua atzean uzteko garaia" dela aldarrikatu zuten. "Bada garaia elkarbizitza guztion artean eraikitzen hasteko". Bestalde, otsailaren 8an gizarte, kultura eta kirol arloko 31 norbanakok adierazpen publikoa egin zuten, Gregorio Eskuderoaren giza eskubideak bete daitezela eskatuz; adierazpenean, euskal gatazkak Orion askotariko sufrimendua eragin duela nabarmendu zuten, "minak alderatzeko borondaterik gabe". ■







%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
HORIA
Aibaitaritzza klinika

ESTROPALARIZ, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 - ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



BODEGA
KATXIÑA

Ortzaika, 20 - ORIO
943-58 01 66 - 606 36 76 93
www.bodegakatxiña.com · f i

Kepa Loidi
harategia-urdaitegia

24 ordutik harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 - Orio · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com - info@kepaloidi.com



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

libe
elikadura
aholkularitza

Ondo elikatuz bizi
Heziketa nutrizionala | Menuen planifikazioa
| Nutrizio klinikoa | Elikadura kirolean
| Elikadura bizitzako aro ezberdinetan

Eusko gudariak, 35 · ORIO (sarrera Arrantzale kaleatik) · 943-53 64 94 · 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com · www.libegarmendia.com



LASTER
DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

24 ordutik 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Jubilatuen eta
Pentsiodunen Eguna

ZAHARREN BABESLEKUKO
ZUZENDARITZA

ORIO

Martxoaren 22an Jubilatuen eta Pentsiodunen Eguna ospatuko dugu, eta bazkaria egingo dugu Aginagako Errasti sagardotegian. Lehenik eta behin, eguerdian, meza izango da Orioko elizan. Ondoren, 13:00etan, bi autobus aterako dira parte hartzaileak sagardotegira eramateko, eta 13:30ean, beste bi. Bazkaria 14:00etan hasiko da, eta bueltako autobusa 18:00etan izango da.

Bazkarian parte hartu nahi dutenek martxoaren 13an eta 14an izango dute txartelak erosteko aukera, 16:30etik 18:30era, Zaharren Babeslekuan bertan. Prezioa 25 eurokoa izango da. Bazkideei gogorarazi nahi diegu bazkarira txartela eraman behar dutela, eta sagardotegiko arduradunari entregatu behar diotela.

Kursaalean kontzertu
solidarioa

SALATXO ABESBATZA

ORIO

Martxoaren 30ean Salatxo abesbatzako kideok kontzertu berezi batean parte hartuko dugu Donostiako Kursaal Auditorioan. Nagusilan Elkarteak antolatuta, langile sozisanitarioak omentzea helburu duen kontzertu



Salatxo abesbatza artxiboko irudian. IÑIGO GAITON

solidarioa izango da, eta Beethovenen 9. *Sinfonia* eskainiko dugu, Musikeneko orkestrarekin, eta Kantakidetza, Hernaniko Kantuz eta Astigarragako Aiztondo abesbatzekin batera. Guretzat erronka garrantzitsua da horrelako proiektu zoragarri batean parte hartzea, eta buru-belarri lanean ari gara saio horretarako prestatzen. Kontzertua zuzenean entzun nahi dutenek sarrerak salgai dituzte Kursaaleko leihatilan nahiz Kursaaleko atari digitalean. ■■■

"GURETZAT ERRONKA
GARRANTZITSUA DA
HORRELAKO PROIEKTU
ZORAGARRIAN PARTE
HARTZEA"

JAIOBERRIAK

• **Adur Armendariz Grijalba.** Orion, otsailaren 16an.

HILDAKOAK

- **Maria Jesus Beraetxe Etxeberria.** Orion, urtarrilaren 13an. 60 urte.
- **Honoría Jara Sanchez.** Orion, urtarrilaren 28an. 89 urte.
- **Manuel Uranga Izeta.** Orion, otsailaren 8an. 86 urte.
- **Pilar Salegi Osa.** Orion, otsailaren 9an. 93 urte.
- **Jose Ramon Albeniz Maiz.** Aian, otsailaren 18an. 93 urte.
- **Juan Dorronsoro Portullarrume.** Orion, otsailaren 22an. 61 urte.
- **Kandida Portullarrume Azkue.** Orion, otsailaren 22an. 93 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



Haurtzaroa eta gaztaroa Aian

Haurra nintzenean, ezinezkoa iruditzen zitzaidan Aia baino herri hoberik eta politagorik egon zitekeenik; beste herririk existituko ez balitz bezala defendatzen eta maitatzen nuen. Zoriontsu nintzen. Oraindik oroitzen naiz, amak arratsaldean Oriora jaitsi behar genuela esaten zidanean, harrapatzen nituen kasketez. Zer nolako buruhaustea arratsaldean *pan* jolasteko edota gure base sekretuan berrikuntzak egiteko aukerarik ez nuelako. Aian arratsaldeak fantasiaz betetakoak izaten ziren; kaleko haurrak ginen, eta herriko txoko guztiak ezagutzen genituen. Ziur nago zenbait herritarrentzat ume moko jasanezinak ere izango ginela.

Gaur egun ere izate guztiarekin maitatzen dut nire

jaioterria, baina herri idilikoaren ideia erabat aldatu zait.

Aia testuinguru aberats batean kokatuta dagoen herria da, baina errealitate horretatik at, zenbait gabezia ere baditu. Herri txikia eta nahiko tradizionala da, eta aniztasuna ez da hain aberatsa, nahiz eta duela urte batzuekin alderatuz gero, aldaketa nabarmenak eman diren arlo horretan. Euskal Herriko zein munduko hainbat txokotatik etorritako jendea topatu daiteke gaur egun, eta duela zenbait urte herrira etorritako horiek, dagoeneko aiarrak bihurtu dira. Integrazio hori bermatzeko hainbat faktore uztartzen dira: eskola, herriak eskaintzen dituen zerbitzuak, aisialdi ekintza ezberdinak, etab. Baina oraindik asko dugu egiteko.

Ludotekako eta gaztelekuko begiralea naizenez, bertatik bertara ikusten dut integrazio horren garapena. Zerbitzu horiek askorentzat garrantzi handirik ez izan arren, haurtzarotik nerabezarora bitartetan Aian eta Aiaz gozatzeko aukera ematen diete gazteei. Hots, norbanakoaren garapen integrala bermatzen duen herria dela esango dut harrotasunez, nahiz eta zentzu batzuetan txikiegia geratzen den.

Zorionez, orokorrean zerbitzu ezberdinez gozatzeko aukera geroz eta zabalagoa da, eta horren ondorioz, haurrak eskolan hasten diren momentutik hainbat aisialdi ekintzatan parte hartzeko aukera dute; ludotekan, esaterako. Nerabezaroran, ordea, estimulu ezberdinak

HAUXE BAI JENEROA!



ezagutu eta beren burua proban jartzeko nahia eta beharra sentitzen dute, eta Aia nahiko txiki geratzen da zentzu horretan. Hala ere, duela zenbait urte Xatur gaztelekua ireki zen. Hasieran, gela bat soilik zen, eta eremua txiki geratu zenez, eskola zaharreko eraikina bihurtu da gazteleku berria. Leku zabala da, eta eremu ezberdinetan banatuta dago, erabiltzaileen beharrak ongi asetzeko. Hala ere, nerabeak askotan ez dira ohartzen horrelako leku bat edukitzea zer nolako zortea den. Bertan egoten den mugimenduak eta giroak, ordea, erakusten du bere funtzioa ongi betetzen ari dela. Nerabezarotik gaztealdira jauzia egiten den unean ere, hutsunea nabarmena da herrian. Zorionez, gazteok

badugu bertan bizi eta herriaz gozatzeko grina, eta horren adierazle da Aiako Gazte Asanbladaren sorrera. Gazteok bertan bizitza eraiki nahi badugu, aldaketak ezinbestekoak izango dira, eta horri helduta sortu da taldetxo hau. Oraindik, baina, taldea sorkuntza eta bere izaeraren identifikazio prozesuan dago, eta nahiz eta bertako kideok motibatuta egon, lan nekeza bezain polita dugu aurretik. Aiak behar duen talde bat da, eta talde txikia izanik ere, Aiako gazteen egoerari buelta emateko indarra izango dugulakoan nago. Horregatik, herriak gazte talde honi ondo heldu behar dio, gazterik gabeko herria hil egiten delako, eta talde honetako kideok lan asko geure gain hartzen ditugulako musutruk. ■■■

PUNTUA JARRITA

Bertsolaria: Ekiñe Saizar.
Doinua: Gazteak Lizargatez.

1 Nola ikusten duzu Orion euskara?

Galdera egin didate ta erantzuna hara, pantailen eraginez jaso du paxara. Altxor handi bat dela jabetzen al gara?

2
Oraindik *buenos dias* eta *hasta luego*. Nahiz eta euskaraz jardun hamaika bezero. Erantzuna erdaraz jaso eta gero, berriz itzultzerikan ez zazu espero.

3
Kalean, parkean, dendan edo kirolean, erabili dezagun aldiro soinean. Orio herri euskaldun bat etorkizunean ikusi nahi badugu jarraitu lanean.

Hurrengo bertsolaria: Jon Makazaga eta Maider Sukia.
Puntua: Trikitixari hautsa kenduta zabiltza. ■■■



Lizaso Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

MARJO



ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behe · ORIO
943-13 47 29

MENDIZABAL AROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behe
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

Oreka

fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Orioko Herri Ikastola

ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

Hemengo haragia.
Ettxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

HARATEGIT PATXI OLIDEN URDATEGIT



Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

Portu

Erretetza - Jateetza



Kazolitak, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA



TRANSPORTES FRIGORIFICOS INDO

Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa



generoa



garraioak



ibilbideak



kamarak



Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Nola ospatzen dituzu inauteriak?



ENERITZ MITXELENA

"Asko gustatzen zait mozorrotzea, eta Orioko inauterietan familian mozorrotzeko ohitura dugu. Gai bat aukeratzen dugu, eta nik egiten ditut mozorroak. Oartzunen, nire jaioterrian, astebete lehenago ospatzen ditugu inauteriak, eta bereziak izaten dira haiek. Intxisuak, basandreak eta sorginak menditiki jaisten dira ostiralean, eta herrira iristen direnean, zortzi auzoetako koloretako banderak dituen kainabera bat zintzilikatzen dute udaletxean, eta herria hartzen dute asteburu osorako. Basatiak dira, kaletik txantxetan ibiltzen dira eta festa giroa jartzen dute. Herritarrak zirikatzen aritzen dira eta futbol partidetara eta bestelako ekitaldietara sartzen dira; oso giro polita sortzen da herrian".



ANDONI TENA

"Tolosakoa naiz, baina azken urteetan ez ditut inauteriak ospatu izan. Hala ere, gogoan dut ospatzen nituenean festa egun handiak izaten zirela. Gogoz hartzen nuen Ostegun Gizena: txupinazora joan, poteoa egin, txilaba eta peluka jantzi... Ostiral Mehez, arratsaldean hasten nuen festa eta gauean jarraitu egiten nuen. Larunbatean, ohea eta ur botila izaten nituen lagun, eta kalera ateraz gero, Tolosatik kanpoko jendea bakarrik ikusten zen mozorrotuta. Igandean, goizean goizetik, pijama eta bata jantzita, txarangaren atzetik hasten nuen eguna, dianan. Kalejira bukatzean, etxera bueltatzen nintzen, eta mozorroa jantzi ondoren, berriro kalera ateratzen nintzen eguna pasatzera karrozak eta konpartsak ikusiz".



ALOÑA AZPIROZ

"Inauteriak gustuko ditut eta hainbat modutan ospatu izan ditut: Tolosara joanda, Nafarroako herriren batera, Donostiara, Usurbilera... Baina, oraingoan, herrian bertan geratu naiz. Gainera, aurtengo Aiako inauteriek aipamen berezia merezi dutela uste dut. Izan ere, orain arte eskolak antolatutako jai xume eta polit bat zena, herri guztiak parte hartu ahal izateko moduko jai bat izan da aurtengoa. Eskolako ekitaldia, txokolatada, musika, mozorroak, txaranga, pintxo potea... denetik izan dugu. Horrelako egitarauarekin, hurrek eta helduok ilusioz prestatu genuen mozorroa, eta giro oso ederrean ibili ginen. Nik, pertsonalki, izugarri ondo pasatu nuen bai prestaketekin eta baita egunean bertan ere". ■■■

bertako -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus

"Argi nuen,
Bidasoa utziz
gero, atzerrira
joateko
izango zela"



JON AZKUE SAIZAR ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloi profesionalean aurrera egiten eta goranzko pausoak ematen jarraitu nahi du jokalaria oriotarrak. Bide horretan, taldez aldatu eta atzerrian ariko da datorren denboraldian. Herriko taldean hasi zen eskubaloian, 17 urterekin egin zuen debuta Asobalen Eibarko Arraterekin, eta Bidasoko kapitain gisa utziko du Irungo taldea.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston.** Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Beste koska bat igoko du eskubaloian Jon Azkue Saizarrek (Orio, 1994) irailetik aurrera. Irun, Bidasoa eta Asobal liga atzean utzi, eta herrialdez aldatuko da Frantziako ligan aritzeko. Bere burua jauzia egiteko prest ikusten duela dio, eta gogotsu dago, gainera, datorrenari ekiteko. Erronka berriei aurre egiten, jokalaria gisa hobetzen eta ametsak betetzen jarraitu nahi du; izan ere, egiten duen kirolarekiko ilusio handia du oraindik.

Bigarren itzuliari ekin berri diozue, azkena izango duzu Bidasoan. Desberdina ari al da izaten?

Kanpoko partida guztiek badute berezia den zerbait. Azken batean, azken aldiz jokatuko dut kantxa horietan Bidasoarekin. Artalekun, ordea, asko geratzen zaizkit oraindik denboraldia amaitu arte. Horregatik, uste dut oraindik ez naizela erabat kontziente azkenak ditudala. Iruditzen zait azken jardunaldietan jabetuko naizela benetan, eta sentimendu asko aterako direla orduan. Gainera, neure burua ezagututa, ziur naiz botako dudala malkoren bat edo beste. Dena den, ez diot

gehiegi begiratu nahi amaiera horri. Iritsi bitartean ingurukoez eta taldeaz gozatzen jarraitu nahi dut.

Arraroa egingo zaizu datorren denboralditik aurrera kolore horia ez janzte. Oriotarra izanik, gainera, eroso ibiliko zinen urte hauetan guztietan, ezta?

Nire kirol ibilbide ia osoa egin dut horiz jantzita, bai. Herriko taldean hasi nintzenean eta Arraten beste kolore batzuk jantzi nituen, baina Bidasoan igaro ditut urte gehien, eta zortez, oriotarroko gogoko dugun kolorea eramateko aukera izan dut. Hala ere, aipatutako beste bi taldeetako elastikoarekin ere gustura aritu nintzen, eta aldaketa bide beretik joatea espero dut. Azken batean, jokatzeari gustuko duguna; soinean daramagun kolorea gutxienezkoa da.

Edonola ere, Bidasoa utziko duzula iragarri zenuenean, erabaki zaila izan dela aitortu zenuen. Zergatik?

Denbora asko daramadalako, batez ere. Oso gazte iritsi nintzen, 17 urte bete berri nituela. Hamabigarren denboraldia dut taldean, eta kostatu egiten da hainbeste maite zaituen leku batetik joatea. Taldeko kapitaina naiz, eta jokalaririk garrantzitsua sentitzen naiz, gainera.

Aldi berean, ordea, iruditzen zait une egokia ere badela egin didaten eskaintza onartu eta erronka berri bati ekiteko. Horrez gain, nire konfort-eremutik ere aterako naiz, eta badut nola moldatuko naizen ikusteko gogoia ere.

Zer erantzun jaso duzu hartutako erabakia jakinarazi ondoren?

Fase desberdinak izan ditu prozesuak. Erabakia hartu aurretik, asko hitz egin nuen nire gertukoekin, nituen zalantza guztiak argitu nahian. Behin erabakia hartuta, ez nuen berehala prentsaren aurrean jakinarazi. Horregatik, agerraldia egin genuenerako apur bat ahaztuta nuen guztia, eta ordua iritsi zenean, berriro jarri nintzen urduri. Ez nekien nola hartuko zuen jendeak, baina nik sentitzen nuena adierazi nuen, eta uste dut ulertu dutela. Ingurutik heldu zaizkidan mezuak eta sareetan irakurri ditudan iruzkinak ere bide horretatik doaz, behintzat. Ez didate hitz txarrik esan, guztiz kontrakoa, animoak eman dizkirate, eta zorte ona opa.

Nora zoazen ez duzu zehaztu, oraindik. Hala ere, esan duzunagatik, ondorioztatu daiteke atzerrian ariko zarela.

Bai. Beti izan dut argi Irun utziz gero oso arraroa izango zela Asobal ligako beste talde batean aritzea; izan ere, Bartzelona salbu, ez dago Bidasoaren maila gaindituko duen talderik ligan.

Horregatik, koska bat igotzeko, zentzuzkoena atzerria joatea dela iruditu zait. Frantziara noa, eta, ondorioz, beste esperientzia batzuk biziko ditut. Beste kultura eta hizkuntza bat ezagutuko ditut datorren denboralditik aurrera.

Atzerria joateko une aproposa dela diozu. Nahiko heldua zarenean egingo duzu urratsa, 29 urte beteko baitituzu aurten. Segurtasun handiagoa ere ematen al du horrek?

Bai. Lehen ere izan ditut kanpora irteteko aukerak, baina gazteagoa nintzen, eta beldur eta zalantza gehiago nituen. Orain, ordea, momentu egokia dela esango nuke, bai pertsonalki, bai profesionalki. Joko aldetik ere helduagoa sentitzen naiz, eta prest ikusten dut neure burua. Gainera, iruditzen zait pausoa orain ematen ez badut, zailagoa izango dela etorkizunean ematea.

Ez da taldez aldatuko duzun lehen aldia, baina bai esanguratsuena, ezta?

Zalantzarik gabe. Aurreko talde aldaketak ere nik erabakita egin ditudan arren, behartutakoak izan dira, nolabait. Orioko taldean hasi nintzen, baina infantil maila amaituta ez zegoen bertan jarraitzeko aukerarik, desegin egin baitzen taldea. Arratetik deitu zidaten herriko beste bi jokalarirekin batera, eta bertara joan nintzen. Eibarren, Asobalen debutatzeko zortea izan nuen, baina talde hura ere desagertu egin zen, eta egoera hark bultzatuta iritsi nintzen Bidasoara, 2011n, taldeak denboraldi aurrea ia amaituta zuela. Horregatik, erabaki hau hartzeko moduak ez du zerikusirik izan aurrekoekin; gehiago hausnartu behar izan dut. Taldean jarraitzeko eskaintza ere banuen, gainera.

Orain arteko hiru taldeetan etxetik gertu aritu zara beti. Horretan ere bada aldaketa. Frantzian zer aurkitzea espero duzu?

Eskubaloia lotuta, kirola ulertu eta jokatzeko beste modu bat; zer maila eman dezakedan ikusteko oso gogotsu nago. Kantxatik kanpo, berriz, nire egunerokoa ere aldatuko da; izan ere, orain arte, beti egon naiz etxetik gertu, eta hori bukatu egingo da. Egia esan, horrek guztiak asko motibatzen nau.

Errealitate berrira egokitzeko prestatzen ere hasiko zinen dagoeneko.

Beldurra eta zalantzak beti daude, baina azken uneko erabakia izan ez denez, horrek nire burua denboraz prestatzen hasteko aukera eman dit, bai. Frantsesa ikasteko eskolak hartzen ari naiz, adibidez. Iristen naizenerako gutxienezko jakintza izan nahi dut.



Norbaitek lagundu behar al zaitu erronka berri horretan?

Bai, neska-laguna nirekin dator, eta jakin badakit berarentzat handiagoa izango dela aldaketa, zeren, ni eskubaloian jokatzera noa, hemen egiten dudana gauza bera egitera. Azken finean, nire egunerokoa antzekoa izango da beste herrialde batean bada ere. Hura, ordea, lana, familia eta lagunak hemen utzita joango da. Bere babesa oso garrantzitsua izan da niretzat eta urratsa egitera animatu nau. Dena den, azken hitza nirea izan da, noski.

Badu pisurik zugar horrek?

Badu, bai. Beste pertsona batek nik bulzatuta egingo duen aldaketaren arduradun sentitzen naiz. Gainera, eskubaloian jokatzeari ere utziko dio nirekin etortzeko; izan ere, neska-laguna ere jokalaria da. Dena den, esan bezala, berak ere animatu nau kanpora elkarrekin joatera, eta horrek lasaitasuna ere ematen dit.

Gainerako gertuko senitartekoak, ordea, Orion geratuko dira. Nola uste duzu eramango duzula distantzia hori?

Hasiera batean, ondo esango nuke, baina aldaketa eman arte inoiz ezin da jakin benetan zer gertatuko den. Orain Donostian bizi naiz, eta lehen baino gutxiago ikusten ditut. Halere, egia da gertu ditudala, hamar minutu eskasera soilik, eta lasaitasuna ematen du horrek. Datorren denboralditik aurrera desberdina izango da, edozer gauza behar dugunean urrutiago izango ditugulako, baina, diodan moduan, pentsatzen dut ondo moldatuko garela.

Eskubaloi arloari helduta, zer dute atzerriko ligeak Asobalek ez duena? Izan ere, asko dira zure antzera kanpora joateko erabaki duten euskal jokalariek.

Maila altuagoko ligak dira; batez ere, Alemaniakoa eta Frantziakoa. Horregatik, Bartzelonan ez dauden gainerako munduko jokalaria onenek bertan jokatzeko dute. Asobal liga indartsuenetakoa izan zen garai batean, baina azken urteetan asko jaitsi du maila. Orain, ordea, lehen baino askoz parekatuago daude taldeak, eta horrek erakargarri ere egin dezake, partida guztiak baitira oso lehiakorrak eta ezusteko asko egoten dira. Bartzelonak jokatzeko dituenak salbuetsita, noski.

Dena den, eskubaloia ulertzeko duten modua da atzerriko ligetatik gehien gustatzen zaidana. Jardunaldiak ez dituzte partida soilak bezala hartzen; joko eremutik kanpora ateratzen dituzten sekulako ikuskizunak sortzen dituzte. Hemen, partida 19:30ean hasten bada, zaleak 19:25erako bertaratuko dira, eta amaitutakoan, 21:00ak aldera, alde egingo dute, besterik gabe. Atzerriko ligetan bestelakoa da hori, pabilioiko tabernetan elkartzen dira zaleak eta kontzertuak antolatzeko ohitura ere badute: biltzeko lekua izaten da eskubaloi kanta.

Nolanahi ere, eskubaloi jokalaria onenak selekzioen arteko nazioarteko txapelketetan bildu ohi dira. Zuk oraindik ez duzu halakorik jokatzeko aukerarik izan, baina Espainiako selekzioa hautatzaileak sartu izan zaitu aurretiazko zerrendetan. Azkenengoan, ordea, kanpoan geratu zinen. Kolpea izan al zen?

Egia da atzerapausoa izan daitekeela aurreko txapelketetan lortu nuelako, nolabait, muturra sartzen hastea. Hor egoten jarraitzea gustatuko litzaidake eta noizbait txapelketa handi bat jokatzeko aukera izatea, baina, aldi berean, gauzak beste era batera ikusten ere ikasi dut. 35 jokalariko zerrendan ez egoteagatik ez da mundua amaituko niretzat.

Txapelketetik alde jokalarien maila fisikoan antzematen da bereziki. Azken urteetan lesio ugari





**"BADU PISUA NIK HARTUTAKO
ERABAKI BATEK BESTE PERTSONA
BATEAN ALDAKETA ERAGITEAK"**

**"ESKUBALOI KANTXATIK KANPO
SORTZEN DENA GUSTATZEN ZAIT
GEHIEN ATZERRIKO LIGETATIK"**

**"AMETS ASKO DITUT ORAINDIK ETA
DAUZKADAN INDAR GUZTIAK
JARRIKO DITUT BETE DAITEZEN"**

izan dituen jokalaria zara zu; kezkarik eragiten al dizu horrek?

Zalantzak badituz, batez ere, izan ditudan lesio guztiak traumatikoak izan direlako, hartutako kolpeek eragindakoak. Ez dut haustura muskularrik izan keinuren bat egiteagatik. Dena den, min hartu dudana bakoitzeko ikasi ere egin dut, eta lesioak ditudanean hobeto eramaten ditut. Jokoaren parte direla ikasi dut, eta ezin nautela frenatu, bestela, ez nuke eskubaloian jokatu. Horrez gain, uste dut lesioetan zenbat eta gehiago pentsatu, erakarri egiten ditugula, beraz, hobe alde batera uztea.

Erdiko postuan jokatzen duzu zuk; jokoa banatu eta antolatzea da erasoan duzun egitekoetako bat, baina taldeko golegile nagusietakoa ere bazara, aldi berean.

Bai, eta are nabarmenagoa da hori beste ligetan; hiru hegalekin jokatzen ari direla dirudi askotan. Asobaleko zentralek, ordea, gehiago betetzen dute tradizioz izan duten jokoa antolatzeko funtzio hori. Egia da ni ere gol asko sartzen ari naizela aurtan, baina ez da bilatutako zerbait izan, taldeari momentuan behar duena ematen saiatzen naiz.

Defentsa lanetan, ordea, ez zara askotan aritzen.

Landu beharreko arlo bat al da?

Lan hori ez dut abandonatuta inondik ere. Ni beti nago prest entrenatzaileak eskatutakoa egiteko eta hobetzen jarraitzeko. Entrenamenduetan beti jarduten dut lanean defentsan, baina partidetan entrenatzaileak erabakitzen du ni non kokatu.

Baduzu oraindik bete ez duzun ametsik?

Noski. Asko, gainera. Ametsik gabe ez ginateke ezer izango, eta ez genuke jokatzeko jarraitzeko ilusiorik izango. Aurrez aipatutako selekzioen arteko nazioarteko txapelketa handiren bat jokatu nahiko nuke, esaterako, eta nire aldetik, behintzat, dauzkadan indar guztiak jarriko ditut hori bete ahal izateko.

Eta arantzarik geratu al zaizu Bidasoan?

Asko diot Bidasoari eskertzeko, eta taldeko kapitaina izanik zoragarria litzateke tituluren bat altxatzea. Denboraldia ez da amaitu oraindik, baina Bartzelona aurrean izanda, badakit ezinezkoa izango dela.

Bidasoara iritsi zinenean pentsaezina zen tituluren bat irabaztea, garai txarrak pasatu zituelako klubak. Orain, berriz, ondo doakio.

Horren harira, badut oroitzapen berezi bat. Arraterekin Asobalen egin nuen lehen golaren berri ematen duen egunkaria etxean dut gordeta, eta nire argazkiaren alboan zetorren albisteak zioen Bidasoak bere historiako partida garrantzitsuen jokatu behar zuela. Artean bigarren mailan zegoen kluba, eta partida hura galduz gero, jaitsi egingo zen. ■■■



Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rola betikotzen direlako baizik.

Martxoak 8,
Emakumeen
Nazioarteko Eguna

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia diputación foral

Leizorako Foru Aldundia
Leizorako Foru Aldundia

ETORKIZUNA
ORAIN
15. Martxoak

EUDEI
Enpleguaren Erakundeak
Enpleguaren Erakundeak

EMAKUNDE
Emakumeen Erakundeak
Emakumeen Erakundeak

ERAKUNDE INKUBARITZA
ERAKUNDE INKUBARITZA
ERAKUNDE INKUBARITZA



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihok.com

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio



ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

IBER glass 

Kristalen konponketa eta aldaketa
Eguzki lamina ilunak
Errotulazioa
Seguruekin kontzertatuta
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01



Estropalari, 12

LAIARAN

Kuadrilentzako
kamisetak, zapiak.....



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUA

Zarauzko Beilatoki-Errauskailuak errausketa-labea du orain, eta zerbitzu integrala eskaintzen du betiko profesionalekin eta instalazio moderno, eraginkor eta argitsuekin.

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.
943 894 937 / 943 422 129 (24h) | memora.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz

m | **memora** | Zarautz
Hileta
Zerbitzuak

Stokholmeko sindromea



EGOITZ DORRONSORO

Kolonialismoa, herrialde edo nazio oso baten dominazio iraunkorra ekarri eta iraunarazten duen prozesua da, zapaltzailearen aberastasunak gehitu eta garapen ekonomikoa sustatzea helburua duena. Asimilazioak, berriz, egoeraren arabera esanahia aldatzen duen arren, kolonizaturiko herrialdeetan, talde minorizatua komunitate zapaltzailean integratzea du helburu, uniformidade kulturala lortu nahian. Bi egoerak estuki loturik egon arren, bigarrena identifikatzea zaila egiten zaigu, bai behintzat gure kasua bigarrena denean.

Mendeak pasa dira kolonizatu gintuztenetik, baita asimilazio prozesua hasi zenetik ere. Hainbeste pasa da, egoera minorizatuan gaudela ere ahanztera iritsi baikara. Gure egoera arrunta izaki, ez gara arazoa ikusteko gai. Asimilazio prozesuan puntuitsu batera iritsi garelakoan nago. Hau da, ez gara itzalaren atzean dagoena ikusteko gai, ez gara erasoak identifikatzeko gai. Biolentzia sinbolikoa denean, alegia, ez dagoenean indarkeria fisikorik, erasoak identifikatzea kostatzen zaigu. Honekin ez dut esan nahi, egun euskaldunon aurkako erasorik ez dagoenik, baina ez ditugu erasotzat identifikatzen. Adibide garbia da euskaraz artatzeko eskubidea nola den baztertua. Askotan euskaldunok hartzen ditugu zapaltzailearen argudioak, gainera.

Zapaltzailearen biolentzia ez identifikatzeak, Stokholmeko sindromea eragin digulakoan nago. Sindrome hau, bahiketa edo bere borondatearen aurkako atxikipen baten biktimak, bere kaptorearekin konplizitate-harreman eta lotura afektibo indartsu bat garatzean sorturiko erreakzio psikologiko bat da, bahitzailea defendatu eta haren kontrako erasoak arbuiazeraino. Euskaldunak egoera honetan gaudela deritzot, Espainia eta Frantziarekin sintonian, hauek gaizki ez sentitzeko neurriak hartzen. Bi estatu zapaltzaileek baimenduriko mugetan bakarrik arituz, euskararen aldeko politiketan salto kualitatiborik eman gabe. Ondorioz, zoritxarrez gorpuztuak ditugu zapaltzaileen argudioak: "euskaraz ezin daiteke hau egin"; "erdaraz ipini beharko dugu denok ulertu nahi badugu"; "ez izan astuna eta egin erdaraz eta kito!" bezalakoak.

Sindrome horren ondorioz, herri bat garela ahaztu zaigu, folklore huts bilakatuko dira laster gure kultura espresioak, pixkanaka espainiar eta frantziar bat gehiago bihurtzeraino. Bide horretan, jada estatu neoliberalen ametsak jan ditugu, eta 1980-1990 hamarkadetako norbanako askeak izateko nahia, aberats izatekora igaro da, nahi duguna kontsumitzeko aukera askatasuna dela pentsatuz.

Amaitzeko, Txillardegik ekarriko dut gogora: "Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; gabe, ziur ezetz". ■■■

**"MENDEAK PASA DIRA
KOLONIZATU
GINTUZTENETIK, BAITA
ASIMILAZIO PROZESUA
HASI ZENETIK ERE"**



ALDATU BEHARRA, HOBETO BIZITZEKO

MIRENE BEGIRISTAIN ETA IORITZ AIZPURU

Tokiko elikagaien kontsumoa bikoiztu egin da azken urteetan, hala diote datuek. Bertako ekoizle txikien eta horiek ekoitzitakoa kontsumitzearen aldeko apustuaren sendotasuna, ordea, ezbaian dagoela uste dute Mirene Begiristainek eta Ioritz Aizpuruk. Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsiziorik gabe ezin dela egin ere uste dute, baina urruti ikusten duten elikadura burujabetza.

Testua: **Mailo Oiarzabal.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Bertakotik elikatuz bertakoa elikatzea onuragarria ez ezik beharrezkoa, ezinbestekoa, dela sinesten dute Mirene Begiristainek (Andoain, 1972) eta Ioritz Aizpuruk (Azpeitia, 1983). Premiazkoa, krisi ekologikoaren testuinguruan, eta krisi hori eragin duten hainbat faktoreri aurre egiteko tresna ere bai. Teorikoki zein modu praktikoan ari dira ideia horren alde lanean. Ekonomian doktorea, EHUKo irakaslea eta ikertzailea da Begiristain Getariako bizilaguna, Biolurreko kide ere bai, eta elikadura sistemak dira bere ikerketan esparru nagusietakoa; Aizpuru, berriz, Azpeitiko Azoka Plazako Elikagunea saltokia kudeatzen duen Artxara kooperatibaren sortzaileetakoa eta kidea da.

Elikadura sistema irauli beharraz aritu dira parean eta pareko, baina hori erakundeen eta eragileen ausardiarik gabe eta gizartea bera eraldatu gabe nekez iritsiko dela uste dute.

Tokikoa, bertakoa, gertukoa, 0 kilometroa... Kontsumoari lotuta gero eta sarriago entzuten diren kontzeptuak dira. Zergatik da garrantzitsua horiek kontuan hartzea?

Mirene Begiristain: Ahoz aho dabil bizi dugun krisi ekologikoa, eta gure kontsumoak izugarriko inpaktua du krisi horretan. Garrantzitsua da

horretaz jabetzea, gure eguneroko kontsumoak, eta tartean elikagaiek, izugarrizko garrantzia dutela krisi ekologikoan. Izan ere, egun jaten dugunaren %95 baino gehiago kanpotik dator, eta milaka eta milaka kilometro egiten dituzte elikagaiek. Zentzu horretan, tokikoa kontsumitzearen garrantziaren zergatia da geure bizitzak hobetzea, eta bertako produktuekin sortzen dugu aukera hori.

Ioritz Aizpuru: Krisi ekologikoa, krisi energetikoa bolo-bolo dabilzan honetan, elikadura burujabetza edo bertako produktuen kontsumoa agente politiko eta sozial denek agendan gorritz jarri beharreko kontzeptuak eta apustuak direla iruditzen zait, esku artean ditugun arazo horiei irtenbidea emateko gakoetako bat direlako.

Eta ari al gara kontuan hartzen? Antzematen al da kontzientzia aldaketarik?

M.B.: Bai, sumatzen da. Kontzientzia handitu da, eta hori datuetan ikusten da, gainera. Tokiko produktuen kontsumoa bikoiztu egin da azken urteetan. Aztertzekoa da zer faktorek bultzatzen duten horretara. Badakigu printzipala ez dela guk aipatu dugun arrazoia. Faktore kolektiboak, krisi ekologikoa eta, ez dira arrazoi nagusiak. Faktore indibidualak dira, gehien bat, aldaketa bultzatu dutenak: osasuna, norberaren ongizatea... Dena dela, datuek erakusten dute gora egin duela tokiko produktuen kontsumoak, eta ikusi besterik ez dago saltoki handietan bertako produktuek eta produktu ekologikoez zer-nolako presentzia hartu duten; eta horrela gertatu da saltoki handi horiek merkatu-hobia ikusi dutelako hor. Hala ere, proportzioa oso txikia da. Gainera, kontuan hartu behar da elikagaiei gure errentaren %15 eskaintzen diegula; beste partida batzuek, etxebizitzak eta garraioak, garrantzi handia hartu dute azken urteetan. Azken hamarkadetan erdira jaitsi da gure errentatik elikagaiei eskaintzen diegun kopurua. Beraz, badago kontzientzia handitze bat, badaude horretan positiboki eragiten ari diren faktoreak, eta tokikoa eta ekologikoa merkatu produktu bihurtu dira; baina, aldi berean, errentan elikagaiei eskaintzen diegun garrantzia ez da handitu.

I.A.: Kontzientzia aldaketa horren adierazle dira herriz herri edo eskualdez eskualde bertako produktuak sustatzeko sortzen ari diren proiektuak ere.

Mirenek komentatu bezala, nabaria da supermerkatu handietan bertako produktuen edota produktu ekologikoen presentzia gero eta handiagoa dela. Baina produktuen presentzia bera baino areago, nabarmenduko nuke azalera handiko saltokiek nola baliatzen dituzten produktu horiek publizitatea egiteko; amu gisa erabiltzen dituzte, jabetu direlako herritarrek kontzientziatzen ari direla. Beste kontu bat da bertako produktuen aldeko apustua benetan egiten duten ala ez.

M.B.: Bai, nabarmena da ez dela gauza bera. Ez da bakarrik zer erosten dugun, baita non erosten dugun ere; eta horrek izugarrizko garrantzia dauka, elikadura burujabetzarekin zerikusi handia dauka. Gure euro bakoitza non jartzen dugun, ekonomia noren eskutan uzten dugun, garrantzitsua da. Energiarekin bezala, ikusi behar dugu zer trantsizio egin nahi dugun elikadurarekin. Tokiko proiektuek izugarrizko garrantzia dute erabakigune gisa ere, ez baita bakarrik zer produktu eskaintzen diren, baizik eta zer eraikitzen den, zer ekonomia eraikitzen dugun horrekin.

Tokiko ekoizle txikiak eta kontsumitzaileak gerturatzeko hainbat saiakera egiten ari dira: kontsumo taldeak, azokak biziberritzeko proiektuak... Kontzientzia duen edo hartzen ari den jendearengana iristen dira horrelakoak, baina publiko orokorrarengana iristeko lana egiten al da? Zer bide jorratzen dira edota jorra daitezke?

I.A.: Uste dut hor sentsibilizazio lan handi bat dagoela egiteko, lehen aipatu dugun larrialdi ekologikoari aurre egiteko edota bertako ekonomia sustatzen duela azpimarratzeko. Hainbeste maite dugun Euskal Herri berde hori, mendiak, soroak... Jendea kontziente izan behar da lehen sektorerik gabe gure ingurumena ez dela bera izango. Era berean, kontziente izan behar dugu gure platerean jartzen dugunak zer eragin daukan esparru desberdinetan. Niretzat, gakoetako bat litzateke hezkuntzan apustua egitea.

M.B.: Landa eremua jaten dugunaren, gure elikadura sistemaren ispilua da, azken finean. Uleratu behar da dena dagoela elkar lotuta, ikuspegi integrala edukitzea oso garrantzitsua da. Nolako elikadura, halako nekazaritza esaten da. Hezkuntza da gakoetako bat, eta gatazka handia dago



Begiristain eta Aizpuru, Azpeitiko Zelai Luzen.

"Egun jaten dugunaren %95 baino gehiago kanpotik dator, milaka kilometro egiten dituzte elikagaiek"

"Euro bakoitza non jartzen dugun, ekonomia noren eskuetan uzten dugun, garrantzitsua da"

"Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsizioarekin batera pentsatu behar da"

Mirene Begiristain

uneotan eskola jantokien gaiarekin. Eskola jantokiek bertako produktuekin lan egin ahal izatea ahalbidetuko duen Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren zain gaude urteetan. Gure Platera Gure Aukerak izugarritzko lana egin du azken urteetan, proiektu pilotuak ere badira martxan, baina ez da lortzen hori orokortzea. Eta funtsezkoa da, eta erosketa publikoarekin lotuta joan behar du. Landa eremua askotan erabiltzen da folklore kutsuarekin, baina egin daitezke gauzak politika publikoetatik, eta eskola jantokiak eta erosketa publikoak tresna oso indartsua dira zentzu horretan. Horiez gain, eta Biolurren ari gara horretan lanean, baserritarrentzat ekoizpen duina eta kontsumo herrikoia garatu behar dira. Hau da, ezin da izan elikagai ekologikoak eta osasuntsuak pribilegio bat izatea; eskubide kolektibo bat dira. Garrantzitsuak dira norberak elikagaiekin lotuta hartu beharreko erabakiak, baina era berean, elikagai horiek eskuragarriak izan behar dira, eta gaur egun ez da horrela.

Ekoizleak eta kontsumitzaileak gerturatzeko aipatutako egitasmoetako bat da Elikagunea. Bost urte bete berri ditu Azpeitiko Azoka Plaza berrituan txertatutako proiektuak. Zer balantze egiten duzue orain artekoaz?

I.A.: Balorazioa positiboa da. Egia esan, beldurrarekin hasi ginen: proiektu berria zen, antzeko beste esperientzia batzuk ezagutzen genituen, baina ez Elikagunearen berezitasunak zituenik; baserritarren plaza batean sartu behar genuen... Baina lehen egunetik eskuak zabalik hartu gintuzten, bai baserritarrek, bai herritarrek, laguntzeko prest, gainera. Laguntasun eta elkarlan horri esker egin dezakegu bost urteon balorazio positiboa. Hiru langilek ekin genion bideari, eta gaur egun zortzik osatzen dugu lantaldea, 400 familia bazkide dira kooperatiban eta 150 bat ekoizleren produktuak eskaintzen ditugu. Beraz, uste dugu aurrera begira apustu berriei heltzeko oinarria behintzat jarri dugula.

Zer jaso duzue azokako ekoizleen partetik? Antzeman al dute alderik haiek?

I.A.: Elkar elikatzen dugula ulertzen dugu guk. Herritarrek azokan aurkitu ezin dituzten zenbait produktu eskaintzen ditugu Elikagunean, horrela beren erosketak osatzeko aukera dute haiek,

eta modu horretan jendearen joan-etorria ere handiagoa da Azoka Plazan. Bestetik, baserritarrek aukera dute azokan ez dauden egunetan ere beren produktuak Elikagunean eskaintzeko. Urte hauetan ikusi ditugu beren ekoizpena egokitu edo handitu duten ekoizleak; edota produktu berriak lantzen hasi direnak, eskaera bazegoela antzemanda. Gauza horiek dira, benetan, gure proiektuari zentzua ematen diotenak, eta guri lanean segitzeko ilusioa eta indarra ematen digutenak. Esan dezakegu familia bat osatu dugula.

Azoka tradizionalak asko pairatu dute kontsumo ohituren eta bizi baldintzen aldaketa. Ekoizleek garatu al dituzte ohitura berrietara egokitzeko tresnak? Edo, zer tresna beharko lituzkete?

I.A.: Azpeitiko gure esperientziatik, ikusi dut baserritarren eta ekoizleen partetik garai eta ohitura berrietara egokitzeko prestutasuna. Beren produktuak Elikagunean saltzen hasteko proposamena egin zitzaizenean zein Enkarguk proiektua martxan jarri zenean, prestutasuna izan dute baserritarrek. Baina denok bezala, laguntza eta bultzada behar dituzte ohitura berrietara egokitzeko.

M.B.: Izan ere, azokek izugarritzko eragin ekonomikoa eta soziala dutela iruditzen zait. Azpeitian ikusten da, eta Tolosan ere ikusten dela uste dut: azoka bete egin da, ez da bakarrik eraikin bat egin edo azpiegitura bat berritu dela, prozesu sozial bat eman behar da, eta Azpeitikoa nabarmena izan da. Horrek erakusten du azokak espazio biziak direla, eta landu egin behar dela berak [loritzek] aipatzen zuen hori guztia. Uste dut baserritarrek egokitu direla, ez bakarrik teknologia berrietara, baita produktuen eskaintzari dagokionez ere. Kontsumo ohiturak aldatzen dihoazela ikusi dute eta produktu berriak eskaintzen dituzte. Baina, era berean, ikusten da azoketako batez besteko adina zein den; Gipuzkoako azoken azterketa bat egin genuen eta bailara guztietako azoketan ikusten da, landa eremuaren ispilua da hori ere. Gai konplexua da, baina azokak biziberritu nahi baldin baditugu, landa eremua biziberritu behar dugu. Azoka oso espazio politiko eta kultural garrantzitsua dela

iruditzen zait, eta asko daukagula ikasteko, adibidez, Azpeitiko prozesutik.

Bakoitzak zeuen esperientziatik ikusita, zein dira gaur egun lehen sektoreko ekoizle txikien zailtasun nagusienak?

M.B.: Motzean esateko asko dira. Lehen esan dudan moduan, uste dut horrelakoetan interesgarria dela elikadura sistemari bere osotasunean begiratzea, gauzak elkar lotuta daudelako, zer arazo sortzen diren eta arazoak nola elkar elikatzen diren. Hala ere, baserritarren arazoez ari garenean badaude bi edo hiru gako. Lan baldintzak dira horietako bat. Baserritarren lan baldintzak prekarioak dira, oso zailak. Izan ere, baserritarrena ez da bakarrik lanbide bat, bizimodu bat da, bizimodu horrek izugarritzko garrantzia dauka gizartearentzat, eta horrek duen balioa ez da kontuan hartzen. Lan baldintza duinak sortzea oso-oso garrantzitsua da, behar den erreleboari heldu nahi badiogu. Urola Kostan, azken urteetan, ia ehun baserri edo ustiategi itxi dira.

Asko dira, ezta?

M.B.: Asko dira, baina beste hainbat eskualdetan gertatzen ari den gauza bera da. Erreleboari eusteko, lan baldintzak hobetu egin behar dira, eta gai horrek estrategikoa izan behar du politika publikoetan. Emakume baserritarren egoera espezifikoak ere ezin da ahaztu. Genero ikuspegitik, baldintzak are zaurgarriagoak dira emakumeen kasuan. Lan eremu maskulinizatua da, eta rolek eta estereotipoek asko markatzen dute emakume batek landa eremuan ekoizpen proiektu bat martxan jarri nahi duenean. Baserri edo ekoizpen proiektu batean norbaitek kotizatu izan badu gizonetzkoa izan da, emakume asko jubilazio eskubiderik gabe geratu dira. Bestetik, Ticket Bai denon ahotan dabilen honetan, uste dut garrantzitsua dela burokratizazioak baserritarrei eragiten dizkien zailtasunak aipatzea. Ez da posible baserritarrei eta ekoizleei behin eta berriz horrenbeste oztopo iristea administrazioetatik goitik behera, digitalizazioak horrenbeste konplikatzeko beren egunerokoa.

I.A.: Elkarrizketa honetara etorri aurretik ekoizle bati galdetu diot, "zailtasunen inguruan eta, zer aipatuko huke?", eta "papeleoa" izan da



"Jendea kontzientze izan behar da lehen sektorerik gabe gure ingurumena ez dela berdina izango"

"Ikusi dut baserritarren eta ekoizleen partetik garai berrietara egokitzeko prestutasuna"

"Proiektuak bideragarri egiten ditugu, baina ez dakit zenbateraino egiten ditugun bizigarri"

Ioritz Aizpuru

haren erantzuna. Lan baldintzen gaiari eutsiz, zaharkituta dago lehen sektorea, batez besteko adina ia 60 urtekoa da. Gazteak sektore-
ra erakartzeko, nik beti esaten dut lehendabi-
zi lehendik dauden ekoizleen lan baldintzak
hobetu behar direla, horrela erakarriko dugu-
la jendea. Izan ere, proiektuak bideragarri
egiten dira, baina ez dakit zenbateraino egiten
diren bizigarri. Uste dut badagoela zeregina,
eta baldintza horien hobekuntzaren ondorioz
lortuko dugula erreleboa sektorean.

M.B.: Gainera, gizartea aldatzen ari da, eta
aldatu egin da gazte batek bere bizitza nola
eraiki nahi duen ere. Lehen sektoreari dirula-
guntza asko ematen zaiola esaten da, baina
dirulaguntza gehienak ustiategi handientzat
izaten dira, ez baserritar txikientzat, nahiz eta
txikiak diren gehiengo; eta bizi baldintza
hobeak sortzen laguntzen du diruak. Horrez
gain, behar dituzten bestelako azpiegiturak,
lan burokratikoak, osasungintzako baldintzak...
ekoizle txikien beharretara egokitu beharko
lirateke. Gauza asko egin daitezke lan baldin-
tzak errazteko.

Eta horiek egiteko borondaterik ba al da administrazioetan?

M.B.: Orokorrean gutxi, esango nuke. Udale-
rriek ez dute konpetentzia askorik lehen sek-
toreari lotuta gai horietan.

I.A.: Eta beste erakundeekin alderatuta, bai
ikusten dela borondate gehiago herri maila-
koetan. Orain arte aipatu ditugun proiektuak,
Elikagunea eta Azoka Plaza Azpeitian, adibidez,
udalaren, eragileen eta ekoizleen arteko el-
karlanari esker gauzatu dira. Baina Mirenek
esan duen bezala, eskumen asko ez daude
udalen esku, eta beste maila horietan boron-
date gutxiago dago.

M.B.: Eta asko egin daiteke, Euskal Herrian
badaudelako konpetentziak aldundien edo
Eusko Jaurlaritzaren esku. Adibidez, lehen
aipatu dugun eskola jantokien gaian, edo
osasun baldintzetan, burokratizazioaren ingu-
rukoetan, kontsumoaren kontzientziari lotuta-
koetan... gauza asko egin daitezke.

I.A.: Eta lurrak lortzeko dauden zailtasunetan
sartzen bagara... Beste ordu batzuetarako
izango genuke elkarriketa.



M.B.: Arazo larria da hori, bai. Gazteek lurra eskuratzeko dituzten zailtasunak izaten dira arazo handienetakoa.

Elikagaietan ere, ia mundu osoko produktuak daude eskura, eta askotan hemengoak baino merkeago. Nola egin aurre horri?

M.B.: Ekoizle txikiek asko landu dute autonomia, eta hori alde dute. Ez dute ekoizle handiek, bereziki eredu industrializatuagoa dutenek, intsumoekiko duten dependentzia, eta asko laguntzen die horrek. Analisiren bat egin da horren gainean, eta ikusi da krisiaren ondorioz gehiago parekatu direla produktu ekologikoen eta konbentzionalen prezioak. Tokikoa eta zuzeneko erosketa, uste dut hori dela kontsumitzaileak duen bidea.

I.A.: Hori da. Merkaturatze bide laburrak erabiltzea da gakoa, zuzeneko salmenta azoka edota kontsumo taldeen bitartez edota Elikagunearen gisa ahalik eta bitartekari gutxien erabiltzen dituzten proiektuen bitartez. Bestetik, askotan ez gara kontziente munduaren beste puntatik iritsi eta merkeago diren produktu horiek zenbat bitartekari dituzten tartean, eta bestaldeko puntan dagoen ekoizleak zuk ordaindu duzun prezio horretatik zer parte txiki jaso duen. Askotan ez gara kontzientze produktu horiek erosten ditugunean eragiten dugunaz: kutsadura, ekoizlearen lan baldintzak...

M.B.: Emakume baserritar batek esaten zidan: "Merke? Nik uste garesti irteten ari zaigula". Ez dira kontuan hartzen beste lurraldeetako baserritarren, ingurumenean eta gurean, gure osasunean, zer inpaktu eragiten diren. Jaten dugunak osasunarekin ere lotura zuzena du, izan ere. Beraz, merke? Garesti irteten ari zaigu, epe luzean.

Elikadura burujabetza bada helburua, egungo abiapuntutik, zer pauso eman behar dira ezinbestean epe motz-ertainean?

I.A.: Erakundeek zein eragile sozialek erabaki ausartak hartu behar dituzte, eta pausoak eman, bai kontsumoan, bai ekoizpenean. Horrek eskatzen du ekoizleen aldeko apustua egitea, ekoizleei erraztasunak ematea, lehenetik dauden ekoizleen baldintzak hobetzeko eta ekoizle berriak erakartzeko. Bertako produktuen kontsumoa sustatuko duten politikak jarri behar dira martxan. Mila gauza daude egiteko.

M.B.: Elikadura burujabetza hitz potoloa da. Izan ere, gauza bat da bertakoa jatea, eta beste bat elikadura burujabetza. Autonomia izatea da kontua, eta landu dezakegu bertako produktuarekin autonomia; baina beste kontu bat da hartzen diren erabakien gainean zenbaterainoko kontrola duen herriak. Hori da elikadura burujabetza, geuk erabakitzea noiz, non eta nola ekoizten den, eta horrekin sortzen den balioa non gelditzen den. Eta hori oso urruti daukagu. Baina, lortzek esaten zuen moduan, estrategia bat landu behar da; zerbait falta badugu horixe da, estrategia bat. Egitasmoak sortzen eta garatzen dira, baina halako akupuntura moduko bat dira, ez dago epe luzerako planifikaziorik. Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsizioarekin batera pentsatu behar da, lurraldearen planifikazioak zutabe bat izan behar du.

I.A.: Elikaduraz ari garenean, oinarritzko gauza batez ari gara. Herri gisa elikadura sistema bat definitzeko eta erabakitzeko gai ez bagara, zer erabaki behar dugu, zer jan eta nola ekoiztu erabakitzeko gai ez bagara?

Estrategia aipatuta, 2030erako Euskadiko elikadura sistema iraunkorrerako lerketa eta Berrikuntza Estrategia osatu dute hain-



bat erakundek eta eragilek, eta lanketa hori gidatu dutenetako bat zara zu, Mirene.

M.B.: Hainbat eragilerekin Europa mailako proiektu batean parte hartzeko aukera izan genuen. Ikerketaren emaitzak Europako Batzordera iritsi ziren eta han bazegoen aditu talde bat. Hemengo lantaldearen emaitzen ondorio nagusietako bat errepikatu zuen aipatutako aditu taldeak: korapilo handiena ez da teknologikoa, ezta ekologikoa ere, korapilo handiena soziala da; berrikuntza sozialean dago gakoa. Horretaz jabetzea garrantzitsua da. Bestela, ematen du krisi honetatik teknologiak salbatuko gaituela, eta tentazioa ederra da, berdin jarraitzeko eta ezer ez aldatzeko. Baina aldaketak gure antolaketa sozialetik etorri beharko du.

Bertakotik elikatzeak zer ematen dio gizarteari?

I.A.: Osasuna, ingurumena, herri gisa nortasuna... Gure elikadura sistemak, zeharka, horietan guztietan eragiten duela esango nuke. Mila arrazoi daude bertako produktuak kontsumitzeko, eta mila arrazoi dauden neurri berean, mila onura eskaintzen dizkio gizarteari bertakoa kontsumitzeak.

M.B.: Hobeto bizitzea. Garai konplikatuak dira, kezka, beldurrez eta ezjakintasunez beteta bizi garela ematen du, erabakiak hartzeko beldurrez, dauzkagun pribilegioak galduko ote ditugun. Baina ausardia aipatzen zuen



loritzek, eta uste dut hobeto bizitzeko aukera bat eraikitzea dakarrela bertatik elikatzeak. Hobeto bizi gaitezke deshazkunde logika horretan; beste era batera, baina hobeto. ■



Ikusi eskusiban Mirene Begiristani eta loritz Aizpururi egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.





Emakumeen aldeko borrokan, zaharrek berri

Pertzetik elkarteak dokumentala ondu du Orioko genealogia feminista gaitzat hartuta, eta martxoaren 17an aurkeztuko du jendaurrean. Horren harira, 1980eko hamarkadan emakumeen eskubideen alde urrats garrantzitsuak eman zituen Orioko Emakume Taldeko lau kideekin hitz egin du KARKARAK: Itziar Olariaga, Pilar Arruti, Maribel Bruño eta Koro Sarasolarekin.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Miriam Garcia**.



Emakumeen eskubideen aldeko borroka ibilbide luzea du Orion, eta hori jasotzen duen dokumentala ondu du Pertzetik elkarteak. Ideia 2021ean sortu zen, Xaltxerak talde feministak antolatu zuen hainbat belaunalditako emakumeen arteko bileran. "Jakin genuen Orioko mugimendu feminista guk uste genuena baino zaharragoa zela, 1980ko hamarkadan izan zelako Orion lan handia egin zuen emakume taldea. Hala, saioa antolatu genuen, gure artean elkar ezagutzeko eta mugimendu feministak herrian egin duen ibilbidea jasotzeko", azaldu du Pertzetik elkarteak Eider Goiburuk. Deialdi irekia egin zuten, eta hiru olatutako emakumeak bildu zituzten. "Oso saio polita eta hunkigarria izan zen, deskubritu genuelako mugimendua 1980ko hamarkadatik datorrela eta gauza asko egin zituztela bere garaian. Pena da, orain arte transmisio hori gertatu ez izana".

Bileran jasotako informazioarekin eta materialarekin, Orioko genealogia feminista islatzen zuen denbora lerroa osatu zuten Xaltxerak talde feministako kideek, horma irudi moduan. Horrekin proiektu sakonagoa lantzeko gogoaz bazuten ere, ohartu ziren lan handia zela militantziaz egiteko, eta Pertzetik elkarteak hartu zuen proiektuaren gidaritzaz, Emakundek emandako dirulaguntza bati esker. Ordubeteko dokumentala osatu dute, eta olatu feminista desberdinetako emakumei binaka egindako elkarrizketez gain, belaunaldien arteko elkarrizketak ere jaso dituzte, etorkizuneko helburuez hausnartuz.

Azken hamarkadan herriko mugimendu feministan parte hartu duten emakumeentzat 1980ko hamarkadako emakume taldea "ezusteko zoragarria" izan dela azpimarratu dute. Taldea 1970.

Arraunetxan grabatu dute olatu feminista desberdinetan parte hartu duten emakumeen arteko hausnarketa.



Goian, Koro Sarasola eta Maribel Bruño, eta behean, Itziar Olariaga eta Pilar Arruti.

hamarkada bukaeran sortu zuten Itziar Olariagak, Pilar Arrutik eta Belen Garatek –geroago sartu ziren Maribel Bruño eta Koro Sarasola, besteak beste–, eta pixkanaka "herri parekideagoa" lortzeko bidea abiatu zuten. Izan ere, garai hartako herria gaur egungoarekin alderatuta oso desberdina zela gogoratu dute lehen olatuko kideek. "Behar asko zeuden: herrian ez zegoen pediatriarik, emaginik, familia planifikaziorako aukerarik.... Antisorgailuen gaia, esaterako, tabua zen gizartean. Herrian ezin ziren antisorgailuak lortu eta ginekologo pribatuarengana joan behar izaten zen horretarako, bestela ez baitzuten errezetatzen. Hemengo botiketan ere ez zituzten saltzen, eta Hendaiaara joaten ginen bila, iparraldean horiek normaltasunez saltzen zituztelako", azaldu dute. Hain zuzen, KARKARak dokumentalean parte hartu duten lau lagunekin hitz egin du: Olariaga, Arruti, Bruño eta Sarasolarekin.

Testuinguruan jartzeko, 1980ko hamarkadako gizarte tradizionalera denboran atzera egin behar dela azaldu du Bruñok. "Genero ikuspegiari dagokionez, alde handia zegoen gizon eta emakumeen artean; emakumeek menpekotasun ekonomiko eta emozional-afektiboki handia zuten gizonarekiko, eta horri erantzun bat emateko gogoz hasi ginen lanean, gizarte orekatu eta parekide baten alde borrokan". Emakumea esparru pribatutik, etxe girotik, atera eta esparru publikora zabaltzea erronka garrantzitsua zen orduko gizartean. "Izan ere, kontuan hartu behar da garai hartan etxeko lanen ardura guztia emakumearena zela; oso emakume gutxi egiten zuten lan etxetik kanpo, eta egiten zuten horien artean gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala handia zen. Gaur egun oso arruntak iruditzen zaizkigun zerbitzuak garai hartan ez

LEHIAKETA

NIN DAGO? KARKARA?

Aurkitu Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **karkara@karkara.eus** helbidera
martxoaren 21a baino lehen.

Saria: Talai Berri txakolindegirako 2 lagunentzako bisita gidatua.
Karkarako Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



39. orrialdean
zegoen ezkutatuta.

Xabier Satrustegi Aldaz
bazkidea izan da irabazlea.

EMAKUMEA ESPARRU PRIBATUTIK, ETXE GIROTIK, ATERA ETA ESPARRU PUBLIKORA ZABALTZEA ERRONKA

HITZALDI ETA LANTEGIEN HELBURUA EMAKUMEEN BEGIRADA ZABALTZEA ZEN

zeuden emakume guztien eskura, ezta emakumeei zuzenean eragiten zieten gaien inguruko informazioa ere".

Olariagak, Arrutik eta Garatek jakin bazekiten inguruan emakume taldeak martxan zirela, eta Orion ere zerbait antolatzeko garaia zela sentitu zuten. "Garai hartan mobilizazioak izan ziren Donostian emakumeen eskubideen alde, eta hondartza aldera paseatzen joan ginen batean, guk ere herrian zerbait egitea pentsatu genuen, emakumeok kolektibo bezala arazo asko bagenituen ere, gai horietaz ez zelako hitz egiten. Pilarrek bazituen lagunak Donostiako mugimendu feministan, eta haien bidez antolatu genituen lehen saioak", gogoratu du Olariagak. Taldea martxan jartzeko deialdi ireki bat egin zuten, Orioko emakumeek zer hutsune antzematen zituzten ezagutzeko. "Harrigarria badirudi ere, emakume mordo batek ariketa fisikoa egin nahi zutela esan zigun, eta hortik abiatuta antolatu genituen emakumeentzat soinketa saioak, Juan Karlos Lazkanorekin. 70 emakumek baino gehiagok eman zuten izena eta, emakumeek erakutsitako interes hartatik, gerora, Indar Gim gimnasioa ireki zuten herrian".

Hitzaldiak

Soinketa saioez gain, emakumeek zituzten kezketatik abiatuta, hitzaldi andana antolatzen hasi zen Orioko Emakume Taldea, eta askotariko gaiak izan zituzten hizpide urte haietan guztietan: abortoa, dibortzioa, alkoholismoa emakumeen artean, emakumearen osasuna, sexologiari lotutako gaiak eta beste hainbat jorratu zituzten lehen olatu feminista hartako kideek, "ezjakintasuna handia" zelako. "Guri on handia egin zigun emakume taldeko kide izateak, eta gai askoren inguruan ikasteak eta hausnartzeak", esan du Arrutik.

Hitzaldi eta lantegien helburua emakumeen begirada zabaltzea zela aitortu dute. Pixkanaka mugimendua indartzen hasi zen Orion, eta hitzaldietan emakume mordoxka biltzen zela azaldu du Sarasolak. Dena den, "emakume asko ez ziren etortzen ordu horretan senarrarentzat afaria prestatu behar izaten zutelako, edo herrian esango zutenak kezkatzen zituelako". Izan ziren bilerak arratsaldeetan, gizonak etxetik kanpo zeuden garaian, jartzeko eskatu zieten emakumeak ere, eta parte hartzea errazte aldera, eguerdietan egin zituzten zenbait saiotan haurtzaindegi moduko bat ere antolatu zuten. "Emakumeek bazuten etxetik ateratzeko gogo, ikastekoa, eta orain urrats txikiak diruditenak, aurrerapauso garrantzitsuak izan ziren bere garaian zenbait emakumerentzat", hausnartu du Arrutik.

Bilerak Kutxak utzitako lokal batean egiten zituzten. "Gaur egun, guztiak bulegoak dira, baina lehen banketxean bazuten erabilera antzeko lokal bat, eta Kutxak herriko eragileoi uzten zigun hitzaldiak eta antolatzeko. Bertan juntatzen ginen. Aurrean, ordea, Itzala taberna zegoen, eta gizon asko egoten ziren zelatan, saio horietara zein joaten ginen jakiteko. Azken batean, orduko gizarte tradizionalaren balioen aurka zihoazen gaiez hitz egiten genuen, eta horrek zeresana eman zuen herrian. Gu, berriz, orduko gizartea eraldatzeko gogo handiarekin geunden, eta ez gintuen kezkatzen gutaz esaten zutenak", aitortu du Sarasolak.

Herriko emakume asko hainbat arrazoigatik hitzaldietara joaten ez baziren ere, emakume taldeko kideek sentitzen zuten emakume askoren babes zutela. Martxoaren 8ko afariak, esaterako, oso jendetsuak izaten zirela gogoratu dute: "Ehun emakume ingururaino ere biltzen ginen. Katxiñan behin baino gehiagotan egin izan genuen, baita Itxas Etxean ere, gaur egun eguneko zentroa dagoen lokal horretan. Urtero egiten genuen, eta emakume asko zain egoten ziren. Gure momentua izaten zen, primeran pasatzen genuen".

Orioko Emakume Taldea pixkanaka urratsak ematen joan zen, eta gauza askotarako bidea ireki zutela uste dute aitzindariak. "Ez da erraza izaten gizartearen joerak aldatzea. Uste dugu norbanako gisa emakume askoren ikuskera aldatuko zela"; kolektibo gisa, ordea, garai hartan "ezer gutxi" aldatu zela uste du Olariagak. "Azken urteetan gure lekukoa hartu duten mugimendu feministako kideekin hitz egin dugunean, ohartu gara guk landu eta konpondu nahi genituen arazo eta oztopo gehienek bizi-bizirik jarraitzen dutela". Olariagaren iritziz berekoa da Arruti: "Emakumeen eskubideen aldeko borrokaren transmisioan eten bat egon dela iruditzen zait niri. Guk bere garaian landu genituen gaiak oraindik pil-pilean daude gizartean, baina ezer gutxi aldatu dela dirudi. Guretzat gai arrotzak ziren; orain, ordea, gutxi edo gehiago etxe guztietan eragiten dute zuzenean edo zeharka. Hala ere, arazo horiek hor jarraitzen dute, eta gizarte modernoak eta teknologia berriek sortu dituzten beste problematika batzuk gehitu zaizkie, gainera". Lehen olatuko emakumeen iritziz, gaur egun informazio handia dago, eta asko hausnartzen da, baina "lehen bezalaxe, kostatzen da gizartean errotutako joerak eta ohiturak aldatzea. Horregatik, emakumeen eskubideen aldeko borroka behar-beharrezkoa da gaur egun, lehen zen bezalaxe". ■



1980ko hamarkadako Orioko Emakume Taldeko kideak, berriketan.

BERAZADI BERRI
ERRETEGIA



*Berazadi Berri Erretegian,
zerbitzaria behar da*

Interesatuak idatzi whatsapp zenbakira:
600 22 00 49

Orio eta Igeldoren arteko mugaldea (eta III)



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: XABIER IRAOLA

Marta Trutxueloren *Orio historian zehar* liburutik: "Donostiako muga kostaldeko itsaslabarrean hasten da, Gaztainarroka eta Berdain artean. Lusarbe baserritik jarraituz, Tontortxiki mendi gainean bukatzen da".

Donostia da Oriorekin muga egiten duen udalerria, bai; baina herri mugakidea Igeldo da. Herria baita Igeldo. Hango herritar gehienek sentimendu hori dute, igeldoarrak dira. Ahalegin politikoa ere egin zuten 2013an: galdeketa, Donostiatik bereizi eta udalerrri independente bihurtzeko, eta herritarren % 62k alde bozkatu zuten. Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin zuen erabakia, eta Igeldo Gipuzkoako 89. udalerria izendatu zuen. Gero, epaitegiek atzera bota zuten neurria, legez kontrakoa omen zelako. Guk, behinik behin, ez diegu ukatuko herritartasuna, ez aginarrei, ez igeldoarrei.

Tontortxikitik itsasoraino luzatzen da Oriok Igeldorekin duen mugaldea. Inguru horretako baserritarrek — Muniota, Benta eta Lusarbekoek, bereziki — lotura handia izan dute beti

Igeldorekin, geldigarrirekin. Igeldora askotan hurbildu izan dira: auzolanean, festa giroan, elizara...

Oriotarrak Igeldora

Orioko gaztetxo asko, Igeldora gurasorik gabe aurreneko aldiz, iraileko aurreneko igandean joan ohi dira, Donostiako lehenengo estropadaren egunean. Lagunekin, kuadrillan egin ohi den irteera hori iniziatikoa da. Oinez abiatu, Andu eta Benta pasatuta Orio atzean utzi, Igeldoko herria zeharkatu, Monte Igeldo parkera iritsi, estropada handik ikusi, *Montaña Rusa*n ibili, funikularrean Ondarretara jaitsi, Alde Zaharrera jo, eta...

Ez dira asko Monte Igeldo bezalako parkea Oriok bezain gertu duten herriak. Igeldokoa 1912an sortu zen. Abuztuaren 25ean funikularra inauguratu zuten; handik gutxira, ostatua eta kasinoak zabaldu zituzten. Jokoa debekatu zenean, kasinoak itxi eta 1925ean dantzaleku dotorea jarri zuten. 1926an, Suitzar Mendia izeneko atrakzioa; gero, Ibai Misteriotsua, urmaela, karrusela, labirintoa... 1940ko hamarkadan dantzalekua itxi eta zinema aretoa ireki zuten. Eta 1967an, hotela eraiki,

aurretik kasinoa eta ostatua egondako lekuan.

Gerra garaian, 1938an, hartza ekarri zuten Igeldora, Ursula: soldaduek Asturiasen topatutako bi hilabeteko hartza-kumea. Jira eta bira egiten zuen kaiola batean jarri zuten, eta oso ezaguna egin zen Donostiako jendartearen. Hogei urte baino gehiago egin zituen han. 1959an Bartzelonako Zoora eraman zuten, animaliak babesteko elkartearen ekimenez, bizimodu hobea izango zuelakoan. Handik gutxira hil zen Ursula. Tximinoak ere izan zituzten parkean, jendea erakartzeko.

Fabian Loidi apaiz bertsolaria

Izan zen pertsona bat Orioren eta Igeldoren arteko harreman estua inork baino hobeto landu zuena: Fabian Loidi apaiza. Añorgan jaioa, guraso oriotarrak zituen, eta Igeldoko apaiza izan zen urte askoan.

Kukuarriko tontorrean dagoen gurutzea, 1949an inauguratu zena, Cementos Rezolako debaldeko porlanarekin egin zen, Loidiren bitartekaritzari esker. Gurutzea jarri zenetik maiatzeko azken igandean ospatu den Kukuarri Egunean, meza Fabianek ematen zuen. Urte askoan



Andu baserriko Arruti Lertxundi senideak (13+1), apain-apain, Igeldoko parkean 1942ko irailean, estropada ikustera oinez joanda. Oriotik 40 bat lagun joan ziren. Bandera irabazita, Aliron kantatuz bueltatu ziren oinez oster. Argazkian: Juliana, Manuel, Maria, Felisa, Martzelina, Konzepzion, Esteban, Jesusa, Cristino, Manuel, Jesus Arenaza Lertxundi, Domingo, Anjel eta Joakin.

etorri zen igandero bere
motoan Igeldotik Lusarbe
baserrira, meza ematera.

Baserrian ermita antzeko
eraikin bat dago. Han ematen
zuen meza igandero, hogeit bat
urtez. Inguruko baserrietako
jende asko bertaratzen zen,
aparte samarreko batzuk ere
bai.

Lusarbeko Mariak salda
prestatzen zien eliztarrei,
igandero, eltze handi batean.
Baserriaren goiko bidearen
aldameneko eremuan (gaur
egungo parkean) ermita bat
eraikitze proiektua ere izan
zen, azkenean gauzatu ez zena.

Inguruko haurrentzako
eskola hasiera batean Bentan

egon zen.
Geroago,
Lusarbera
pasatu zen,
baserriaren
zati bat
eskolari
emanda.
Zestoako
Anttoni
andereñoa
zen irakaslea,
bertan bizi
zen eta bera
arduratzeko
zen inguruko
baserrietako haurrei eskola
emateaz. Ez zuen irakasle-
titulurik, eta batez ere txikiekin
aritzen zen. Haurrak,



Bentako eskolara biltzen ziren inguruko baserrietako haurrak ikastera. Gero, Lusarben eta Aizperron ere egon zen eskola.

koskortzean, Aizperrora joaten
ziren, eta han lortzen zuten
titulua. Anttoni 20 bat urtez
aritu zen lan horretan.



Gerra aurreko urtean (1935), San Martin egunean, Lizargaten, Kukuarri mendipeko baserrietako gizonezkoak festa ospatzen. Emakumezkoek artean ez zuten lekurik.

Orioko Benta

Garai batean Bentara eta inguruko baserrietara iristeko ez zen kamiorik, gurdibide moduko bat besterik ez. Gerra amaitu ostean zabaldu eta egokitu zituzten hango bideak. Gerraostean, Mendizorrotzetik Orioko mugarainoko errepidea egiteko, Donostiatik ekartzen zuten jendea lanera, kalean topatzen zituzten gazteak hartuta.

Gaur egun, berriez, autoentzako errepideaz gain, Santiagora oinez doazen erromesentzako bide bat dago Igeldotik Oriora. Haietako askok Aldape baserriko Rosa Arruti zendu berriaren aterpean lo egin ohi zuten, Goiko Kaletik barrena Oriora jaitsi aurretik.

Benta suak hartu zuen bi aldiz, haur baten pospoloak eta tximistak ekarrita. Heriok etxeko bi anai eraman zituen, gazte asko, istripu banatan, irristatu eta itsasora erorita: 1947an, Emilio; eta 1953an, Antonio San Sebastian. Gurutze bana dago mugalde horretan, haien oroigarri, bata Igeldora doan kamio ertzean, eta bestea Gaztainarroka aldean, Botton arraldean. "*Bentara noa, Bentatik nator, Bentan da nire gogoa...*" kantatzen zuen Mikel

Laboak. Badute bai zer gogoan izan Bentan bizi izan zirenek baserriaren historiatic.

Hasiera batean baserria besterik ez zen *Benta*, gero taberna-jatetxe txiki bat ireki zuten. 2018. urte inguruan taberna itxi eta, geroago, saldu egin zieten komunitate bateko kideei. Haiek, obra egin ondoren, zabaldu egin dute ostera jatetxea, guztiz eraberrituta, The Yellow Deli izenarekin.

Gaztainarroka

Muniota, Benta eta Luserbe baserrietakoek joera handia izan dute denbora librean arroketa jaisteko. Olagarroa, lanpernak, lapak...; itsasoak aberastasun handia eskaintzen die itsasotik horren gertu bizi direnei. Baina arroketa arrantzak arrisku handiak ditu berekin, mareak eta olatuek ustekabe latzak ekarri izan dizkie arrantzaleei; azkenetakoa 2022an bertan gertatu zitzaion Jesus Lizasori, Agiti baserri inguruko arroketa, susto izugarria hartu zuen, ia bertan geratu zen betiko.

Gaztainarrokan bada bertso bat, txoko hura gehien maite zuenetako bati jarria, 2021eko maiatzaren 3an, Jose Mari

Iribarri, Altuna baserriko olagarro-zale amorratuari. Honela dio: "Kukuarriren altzoan eta itsasoaren ertzean/ babes bihurtzen Gaztainarroka, ilargiak agintzean/ arroka lakar, kakra lagun, zure ametsen etxean/ ikasi dugu maitatzen lurra, bere fruituak biltzean/ zure ikaspenak beude gurekin, hemen gauden bakoitzean". Jose Mari utzi gintuenetik zailago dago txoko hartara iristea, sasiak bidea hartuta.

Gaztainarroka arroka-leku kutunetako bat da arrantzarako. Leku berezia, hondartza modukoa, baina han ez dago hondarrik, dena da arroka. Mollaritik barkuetan Andazarrateko burdin-mea Ingalaterra aldera eramateko itsasoratzen zuten bezala, Gaztainarrokan harria itsasoratzen zuten, itsasoz Donostiara eraman eta han eraikinak altxatzen erabiltzeko, *Igeldoko harria* izenez ezaguna dena.

Handik oso gertu dago Oriok Igeldorekin egiten duen muga. Mugalde horri buruz kontu interesgarri askoak azaldu zizkigun Luserboko Pello Joxe Saizarrek. "Gaztainarroka izena askok uste du gaztainatik datorrela, baina ez da hola, han ez dago gaztainarik; hor dagoena da *gazta-in*, bai, inguruko baserritarrek belarra ebakitzen zutenean, belar ona baserrira eramaten zuten ganadutarako, baina



Orexako Pedro Saizar Zabala, Katxiña, Andu eta Euskitza baserrietan morroi ibili eta gero, Lusarbeko Maria Makazaga Gozategirekin ezkondu zen. Han 8 seme-alaba izan zituzten: Koro, Asentxio, Jose Ignazio, Jesus, Arantxa, Maria Pilar, Jose Ramon eta Pello Jose.

Gaztainarroka garbitu eta han gelditzen zen belarra aprobetxatzeko, ardiak eta ahuntzak botatzen zituzten, belar hura jan zezaten. Ardi haiek gero gazta *iteko* balio zuten, hori geratzen da agerian hitz horretan".

"Gaztainarroka inguru horretan kontrabandoa izan da asko, angularena. Frantziatik ekartzen zuten, eta han lehorreratu, gero bidea libre izateko. Lusarbeko emakumeak guardiekin hizketan aritzen ziren, haiek despistatzen, eta, bitartean, fardoetan igotzen zuten angula goiko bidera".

Horiek dira Orio eta Igeldoren arteko mugaldeak eman

dizkigun istorioak. Aurtengo uztailaren 3an Frantziako Tourra pasatuko da handik: Txankatik Bentara igo eta Igeldo aldera joko du. Abenduan asfaltatu zuten bidea, txukun-txukun. Hogeita hamar urte izango dira azkenekoz egin zutenetik, txirrindulari profesionalak handik igaro



Lusarbe Erdikoek harreman estua izan dute Igeldoko herriarekin: eliza, jaiak, herri-kirolak... Baserriak garrantzi handia izan du mugaldeko inguru horretan: meza ematen zen bertan, eskola ere izan zen...

ziren azken lasterketatik. Pena da ziklisten proba bost urtean behin ez pasatzea! ■■■

☎ 666 047 535

📷 @OSAI_ARKITEKTURA

✉ OSASIAIN@GMAIL.COM

📍 ALMIRANTE OA KALEA 1, 1º
20810 ORIO



ARKITEKTURA - ERREFORMAK - BARNE DISEINUA

SUKALDE ETA KOMUN PROIEKTUAK

DISEINU ETA AURREKONTU PERTSONALIZATUAK

ALTZARI EXPOSIZIOA

Herri izaera duten auzo biziak

Aiako kaskoak ez ezik, bertako auzoek ere erakutsi dute bizirik daudela. Eraikin zaharrak birmoldatu dituzte udalaren laguntzarekin eta, egun, auzotarren topagune bilakatu dira; gainera, hamaika ekintza egiten dituzte urtean zehar. Horren eredu dira Andatza eta Urdaneta auzoak.

Testua: **Andrea Zipitria.**
Argazkiak: **Andatza Auzo Elkarte**
eta Urdaneta Auzo Elkarte.

Arrutiegia, Kurpidea, Etxetaballa, Iruretaegia, Olaskoegia, Andatza, Santio Erreka, Laurgain, Altzola, Urdaneta eta Elkano. Guztiak irakurri dituenak, ondo daki zertaz ari den kazetaria: Aiako auzoez. Kaskoa Pagoetaren magalean badago ere, Aiak azalera handia du. Eskolatik ondo ikasia dute aiarrek, bai, honako esaldia: "Gipuzkoako herri handienetakoen artean dago Aia azalerari dagokionez", eta horretaz harro daude, noski. Hain zuzen, bertan sakabanatuta daude aipatutako 11 auzoak.

Administrazio aldetik auzoak izan arren, askok aspalditik izan dute herri dinamika indartsua, eta herri izaera izatera ere iritsi dira batzuk. Horren adibide dira azken urte hauetan sortu diren auzo elkarteak.

Edurne Albizu Urdaneta auzoko bizilaguna da; "aurrena Urdanetakoa, eta gero Aiakoa, eta ez Zarauzkoa", azaldu du, barrez. Duela bi urte sortu zuten Urdanetako Auzo Elkarte "auzoa biziberritzeko" asmoz, eta gaur egun 80-85 pertsona inguruk osatzen dute. Eskola Etxe bat dute auzoan, eta hori aprobetxatuz, bertan biltzen dira. Gainera, Aiako Udalaren laguntzarekin berritu egin dute: "Besteak beste, areto eder bat, komun bat eta leiho berriak atondu dizkigute", azaldu du. Elkartearen sorrerak "asko lagundu" diela iritzi dio; "izan ere, auzotar asko ezagutu ere ez ginen egiten, eta elkarteari esker, aurpegia jarri diegu bizilagunei".

Halaber, ekintzak antolatzen hasteko bidea izan da elkartea. "Izurriteak gogor jo zuen, eta nahiko isilik egon ginen hasieran; dena den, gauzak hobetu bezain laster ekin genion ekimenak antolatzeari". Pasa den urteko uda hasieran, San Joan suarekin abiatu zituzten ekintzak. "Suarekin batera, afari-merienda egin genuen frontoian, eta giro ederra izan genuen hitzordu hartan". Horrez gain, abuztuko asteburu batean Pagoetara irteera ere antolatu zuten. "Hogei bat lagun elkartu ginen, eta bertan pasatu genuen gaua. Arratsaldean, umeentzako jolasak antolatu genituen, afari-pasa egin, tertulian aritu eta han egin genuen lo. Goizean, berriz, Urdaneta auzora jaitsi ginen, eta elkartean gosaldutatu genuen, denok elkarrekin. Esperientzia ederra izan zen", adierazi du Albizuk.

Zinema emanaldiak, *Altxorraren bila* jokoa eta paella-jana ere egin dituzte auzoan. "*Altxorraren bila* antolatzen dugun bigarren aldia izan da". Nobedade gisa, gainera, pasa den urtean, Olentzero Urdanetako auzora igotzea lortu zuten haurren gozamenerako, eta horrekin "oso gustura" daude auzotarrak.

Antolatutako ekintzak ez ezik, auzoan nabaritzen dituzten gabeziak biltzen ari dira, eta horiek guztiak Aiako Udalarari helaraziko dizkiete. Esaterako, "asteburuetan jende asko etortzen da mendi buelta bat ematera Urdaneta ingurura, eta bertan daukagun aparkalekua azkar betetzen da. Horregatik, edozein lekutan uzten dira autoak.



Gipuzkoa
*berdea, orain
eta beti.*

ETORKIZUNA
Orain.
etorkizunacraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

ETORKIZUNA ORAIN

IONE LARRAGO



Arazo horri irtenbidea eman nahi diogu".

Urdanetakoa baino zertxobait handixeagoa da Andatzako Auzo Elkarte, eta esperientzia ere handiagoa du; duela hainbat urte hasi ziren lehengo eskola zen eremua birmoldatzen, baina inaugurazioa 2018ko martxoan egin zuten, Aiako Udalaren laguntzaz egindako obren ondoren.

"Auzoaren aldeko apustu aparta" zela ikusita, hasieratik bertako kide izan da Ane Sarasola. Egun, gainera, berak hartu du festak antolatzeko ardura. "Toki guztietan bezala, elkarte bat koordinatzeko barne antolakuntza beharrezkoa da, eta urtero hainbat rol hartu behar izaten ditugu. Aurten, niri tokatu zait auzoko festak kudeatzearen ardura", berretsi du. Horrez gain, badira diru kontuez edo instalakuntzaren egoeraz arduratzen diren elkarteko kideak ere, guztiak ere asmo berarekin: "Auzoa bizirik mantentzea".

Sarasolak, ordea, festen gaia menperatzen du batik bat, eta horren inguruan eman ditu zehaztapenak. Izan ere, San Pedro jaiak ospatzen dituzte Andatzan, eta horiek antolatzeaz elkarte arduratzen da. "Laster hasiko gara gaia lantzen, baina momentuz, goiz da horren berri emateko, oraindik ez baitugu ezer itxi". Uda aldera, halaber, usakume tiraketa izaten da eta, azaroan, berriz,

auzo Eguna egiten dute. Gertuen dagoen ospakizun eguna, berriz, martxoaren 18a da, Barrikote Eguna.

Ekintza horien guztien helburua da "bertako bizilagunentzat erakargarriak diren ekintza ezberdinak" antolatzea. Aipaturako horiek guztiak urtero errepikatzen diren ekitaldiak dira, baina badira "urtearen eta herritarren interesaren arabera" egitarauan gehitzen dituztenak ere.

Kontuak kontu, "haur, gazte zein helduentzako topagune" bihurtu da Andatza Auzo Elkarte. Egunero irekitzen dute eremua. "Astean zehar gurasoak gerturatzen dira, batik bat, haurrekin. Parkea ere hortxe dago, eta Aiako kaskora igo beharrean bertan arratsaldea pasatzeko aukera hori eskaintzea izugarria da". Gazte zein helduek, berriz, "elkarte gastronomikoaren eremua erabiltzen dute, gehienbat". Hala ere, eraikina handia da, eta erabilera anitzak eskaintzen dituela azaldu du Sarasolak. Bi solairutan dute elkarte banatua, eta badute umeentzako egokitutako eremua edota kirola egiteko espazioa ere. Azken aukera horren barruan, esaterako, aerobik eskolak izaten dituzte astero-astero. "Irakaslea etortzen da eskolak ematera, eta talde polita osatu da aurtengoan". ■■■■

Auzotarren arteko sokatira Urdanetan.

Andatza Auzo Elkartean otordua.

**ANE SARASOLA:
"AUZOTARRENTZAT
ERAKARGARRIAK
DIREN EKINTZAK
ANTOLATZEN DITUGU"**



LARDIZABAL HERRI ESKOLA

JOSU ETXABE
ANDERE ALDALUR

"Etxean bezala sentitzen naiz"

IBAI AZPIROZ ARRUTI ETORKIZUNeko IRAKASLEA



Gaurkoan, Ibai Azpiroz Arruti aiarra elkarrizketatu dugu. Lardizabal eskolan praktikak egiten ari den etorkizuneko irakaslea da.

Nolatan hasi zinen Heziketa Fisikoko irakasle ikasketak egiten?

Txikitatik irakaskuntza gustatu izan zait. Duela lau urte erabaki nuen LHko irakasle izateko ikasketak egitea. Lekua ere erabaki behar nuen. Etxetik ateratzeko gogoia nuenez, Gasteiz aukeratu nuen.

Gainera, beti izan naiz kirolaria eta kirolzalea, eta Heziketa Fisikoa aukeratu nuen.

Zenbatgarren mailan zaude?

Aurtengoa laugarren urtea da. Lehenengo hiru urteetan LHko irakasle izateko prestatu gara, eta aurtén, Heziketa Fisikoko minor hau egiten ari naiz.

Zergatik aukeratu duzu Aiako eskola praktikak egiteko?

Aurreko bi urteetan praktikak Gasteizen egitera behartu gintuzten. Aurtén askatasuna eman digute lekua aukeratzeko, eta nire txikitako eskola

aukeratu dut gertutasunagatik, eta eskolaren beste ikuspegi bat eduki ahal izateko; lehen ikasle bezala, eta orain, irakasle gisa.

Gustatuko al litzaizuke gure eskolan lan egitea?

Bai. Oso gustura nago, baina ezinezkoa da, oraingoz. Irakasle guztien ibilbidea egitea tokatuko zait: ordezkapenak, oposaketak...

Gustuko al dituzu haurrak?

Bai, asko gustatzen zaizkit. Harreman ona izan dut beti hurrekin, bai eskolan, bai eskolaz kanpo. Haurren ikasketetan laguntzea oso polita iruditzen zait. Lardizabal eskolan etxean bezala sentitzen naiz bai ikasleekin, bai irakasleekin.

Asko ikasten al da praktikaldian?

Azken hiru urteetan ikasi duguna praktikan ezagutzea beharrezkoa dela esango nuke. Gradua egin ez duen beste bat baino prestatuago nagoela iruditzen zait, baina oraindik ikasten jarraitu beharko dut luzaroan, nire ikasketa eta irakasle prozesua hobetzen joateko. ■

**"IRAKASLE GUZTIEN
IBILBIDEA EGITEA
TOKATUKO ZAIT ORAIN:
ORDEZKAPENAK,
OPOSAKETAK..."**

Jolasgaraiko antolaketa

Gaurko honetan jolasgaraia buruzko iritzia ematera gatozkizue.

Gaur egun jolasgaraia era honetan dago antolatua: astean behin, futbola, eskubaloia, saskibaloia, artzikirola eta baloirik gabeko eguna egiten da futbol zelaian. Baina zelaiaren erdia bakarrik erabil dezakegu.

Frontoian, berriz, pala, esku pilota eta zesta punta egiten da egunero. Baina eguraldi txarra egiten duenean, ikasle guztiak frontoira joaten gara, eta palaz ezin da jolastu. Esku pilotan eta zesta puntan, bai.

HHkoek parkea erabiltzen dute.

Gu ez gaude ados futbol zelaiko antolaketarekin: eskubaloian eta futboleko zelai osoa erabiliz jolastu nahi dugu.


Bestalde, saskibaloia eta artzikirolaren ordeza, beste kirol desberdin batzuk eskaintzea nahiko genuke.

Frontoia, berriz, gure ustez ondo antolatuta dago.

Hala ere, ulertzen dugu beste batzuek beste jolas edo kirol desberdinetan ibili nahi izatea, eta horretarako leku gutxi geratzen zaiela esatea.

Baina futboleko jolasteko edo eskubaloian jolasteko zelai erdia toki gutxi dela ere ulertu behar da.

Oraingoz berdin jarraitu beharko dugu, baina gauzak aldatzea espero dugu. ■





Sudoku

ALdea dago! Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.



NORK ZER

Gure laguntxoek liburu bana irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?



HANDIENETIK TXIKIENERA

Lagundu bikote honi bere liburuak apalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 9. Bide batez, beheko irudia margotu.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41